
**Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia
2003**



**Memoria
2003
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia**



**Mémoire
2003
Académie de la Langue Basque
Euskaltzaindia**





Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia

2003

Bilbo, 2004

© Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
E-mail: info@euskaltzaindia.net
Webgunea: www.euskaltzaindia.net

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.
Ekaingo Kobak, 3, 1º. 48005 Bilbo

Inprimategia: GZ Printek, S.A.L.
Polígono Industrial Torrelaragoiti, pabellón 4. 48170 Zamudio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-2538-04

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
I. Erakundearen jarduerak	9
I.1. Akademiaren jarduerak	11
I.2. Batzar bereziak	25
I.3. Kanpoko jarduerak	27
I.4. Euskaltzaindia erakundeetan	31
I.5. Sariak eta omenaldiak	33
I.6. Heriotzak	35
I.7. Hilberri txostenak	37
I.8. Izendapenak eta ordezkapenak	39
II. Akademia-jarduera	43
II.1. Hiztegi gintza	47
<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (OEH)	47
Hiztegi Batua	51
II.2. Gramatika	53
II.3. Dialektologia (<i>Euskararen Herri Hizkeren Atlas</i>)	55
II.4. Onomastika	61
II.5. Literatura	65
Herri Literatura	65
Literatura Ikerketa	67
Sariketak	69
II.6. Euskara Batua	73
II.7. <i>Jagon saila</i>	75
Corpus alorreko lanak	75
Sustapen alorreko lanak	77
III. Erakunde zerbitzuak	79
III.1. Egoitza eta ordezkariak	81
III.2. Azkue Biblioteka	93
III.3. Argitalpenak	99
IV. Aurrekontuak	107
IV.1. Balantzea	109

V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak	111
V.1. Eusko Jaurlaritza eta hiru diputazioak	111
V.2. Nafarroako Gobernua	114
V.3. Estatu Administrazioa	117
V.4. Iparraldeko Herri Aginteak	117
V.5. Udalak	117
V.6. Unibertsitateak	119
V.7. Baionako <i>Iker</i> Taldea	120
V.8. EROSKI	121
V.9. Euskaltel	121
V.10. EiTB	121
VI. Euskaltzaindiaren organigrama	365
VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak	367
VI.2. Batzordeen zerrenda	369
VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama	373
VI.4. Helbideak	377

Aurkezpena

Euskaltzaindia 1983an hasi zen **Oroitidazkia** egiten, Euskaltzainburuaren gidaritzapean; 1989tik aurrera Idazkariak egin izan du eta, 2003koan niri egokitu zait aurkezpena egitea, urte horretan suertatu baita nire jubilazioa idazkariorde-kudeatzaile bezala.

Hona hemen urte honetako zenbait gertakizun aipagarri:

XIII. Barne Jardunaldiak. 1979an hasita, Euskaltzaindiak bi urtetik bi urtera egiten ditu Barne Jardunaldiak. Horrela, 2003an, Kardaberaz III. Mendeurrenkari, Hernaniko Udaletxean egin dira Jardunaldi horiek, otsailaren 28an eta martxoaren 1ean. Akademiaren egoerari buruzko gogoeta egitea izan da hizpide nagusia. “Euskaltzaindiaren abaguneaz txostena” deritzanetik pasarte hau dakart: “Gure hizkuntzaren erabilera zuzenaren instantzia gorena da, eta bere egitekoak ezin dira epaitu ikuspegi ekonomizista hutsen bidez, EITB, Emakunde, Eusko Trenbideak eta beste erakunde edo enpresa publiko batzuk, adibidez, horretara epaitzen ez diren bezalaxe”. Hurrengo egunean, batzordez batzordeko lan eta egitasmoak aztertu dira eta 2003-2004 urtebikorako batzordekideak hautatu.

Hiru mendeurren ospatu ditu aurten Euskaltzaindiak. Lehena, Agustin Kardaberaz hernaniarraren jaiotzaren hirugarren mendeurreana izan da. Mendeurren hau, Euskaltzaindiak Hernaniko Udalarekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ospatu du, batetik, otsailean Hernaniko Udaletxean eta bestetik, azaroan, Deustuko Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusean.

Euskaltzaindia lehendabizikoz joan da Nafarroako Erriberriko merindadera. Maiatzean, Bertolomé de Carranza nafar ospetsuaren jaiotzaren bosgarren mendeurrenean parte hartu du Euskaltzaindiak Miranda Argan, hileroko bilkura eta ageriko bilkura eginez.

Irailean, Manuel Intxauspe euskal idazle zuberotarren heriotzaren mendeurrena ospatu da Basabürüa haren eskualdeko hirian, Atharratzen. Bertan, hileroko osoko bilkuraz landa, sei hitzaldi interesgarri entzun ahal izan dira omenezko ekitaldian.

Euskaltzaindiak hogeita bat euskaltzain urgazle berri izendatu ditu, batzorde desberdinetan lanean ari direnak, adierazi duten gaitasuna eta Erakundearekiko lana aitortuz.

Otsailean, Euskaltzaindiaren adierazpena Euskaldunon Egunkaria ixtearen ginean kaleratu du Akademiak, gaiaren larritasuna kontuan izanda.

Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskatuta, **Euskal Herria** izenari buruzko adierazpena onartu du Euskaltzaindiak uztailleko osoko bilkuran.

Aurreko urtean Hendaian, Baiona eta Oloroeko elizbarrutiek hasitako “Eliza eta euskara” gaiari jarraipena emanez, VII. Jagon Jardunaldiak egin dira irailean, Iruñeko eta Tuterako elizbarrutien egoera aztertuz.

Euskaltzaidiak, 25 urte lanean aritu diren bere langileei zilarrezko domina emateko ohitura du. Aurten Begoña Amundarain, Resu Orbe eta Lutxi Alberdiri eman die Akademiak domina hori. Langileen iraunkortasunak, enpresaren seriotasun eta profesionaltasuna adierazten duela esan zidan behin aspalditik ezagutzen dudana euskal enpresaburu batek. Euskaltzaindiaren lan akademikoaren euskarri moduan, egoitzan eta ordezkartzetan egunero egiten den lan isila gogorarazteko, egokiak dira honelako uneak.

Euskaltzaindiaren eta EAEko Herri Aginteen arteko esparru-hitzarmen berri baten oinarritzko testua onartu da. Beronen xede nagusia hau da: Erakundearen jarduna aurrerantzean ziurtatzea "ekintzak sustatuz eta bermatuz". 2005. urtearen hasieran indarrean jarri nahi den hitzarmen honek, "aurrekontu arrunta" babestuko luke, Erakundeari egonkortasuna emanaz eta, bestetik, "programaz programako aurrekontua jasoko". Uste dugu Herri Aginteok, Autonomia Estatutuaren 6.4. artikulua euskararen Akademiari ematen dion aholku-emaile ofiziala izatea bermatzen eta normalizatzen dutela. Euskaltzaidiak, bere aldetik, herri diruak jasotzen dituen heinean, beraien erabileraren errendapenik gardenena emango du.

Hain zuzen errendapen hori emateko modu aproposa da **Oroitidazki** hau. Euskaltzain, batzordekide, lankide, Herri Aginte, unibertsitate, euskalgintzan edota kulturgintzan diharduten elkarte eta talde, babesle eta laguntzaile orori zuzendua baita.

Jose Luis Lizundia,
diruzaina

I. Erakundearen jarduerak

I. ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.1. AKADEMIAREN JARDUERAK

Euskaltzain urgazle berriak

Orotara, 21 euskaltzain urgazle berri izendatu ditu Akademiak, urtarrilaren 31n egitako osoko bilkuran. Hona hemen izenen zerrenda eta zein batzordetako kide diren, bai eta zein den horien herrialdea ere:

Apirilaren 25ean, Euskaltzaindiak izendatu berri dituen euskaltzain urgazleei diplomak banatu zaizkie. Ekitaldia egoitzan izan da.

- | | |
|---|---|
| 1. Agirreazkuenaga, Joseba. Azkue Biblioteka (Bizkaia) | 11. Iñigo, Patxi. Jagon Saila (Nafarroa) |
| 2. Altonaga, Kepa. Azkue Biblioteka (Bizkaia) | 12. Irazabalbeitia, Iñaki. Onomastika (Gipuzkoa) |
| 3. Arkotxa, Aurelia. Literatura Ikerketa (Nafarroa Beherea) | 13. King, Alan. Gramatika (Ingalaterra) |
| 4. Aurre, Jon. Euskalkiak (Bizkaia) | 14. Makatzaga, Jesus Mari. Gramatika (Gipuzkoa) |
| 5. Bilbao, Gidor. Onomastika eta Azkue Biblioteka (Bizkaia) | 15. Navarro, Koro. Hiztegi Batua (Gipuzkoa) |
| 6. Camino, Iñaki. Dialektologia (Gipuzkoa) | 16. Olaziregi, Maria Jose. Literatura Ikerketa (Gipuzkoa) |
| 7. Casenave, Jon. Literatura Ikerketa (Lapurdi) | 17. Otaegi, Lourdes. Literatura Ikerketa (Gipuzkoa) |
| 8. Erdozia, Xabier. Lege-Ekonomia (Gipuzkoa) | 18. Rekalde, Paskual. Euskalkiak eta Hiztegi Batua (Nafarroa) |
| 9. Etxebeste, Izaskun. Dialektologia (Gipuzkoa) | 19. Segurola, Koro. Dialektologia (Gipuzkoa) |
| 10. Igerabide, Juan Krutz. Literatura Ikerketa (Gipuzkoa) | 20. Telleria, Pello. Batzorde koordinatzailea (Gipuzkoa) |
| | 21. Urkia, Miriam. Hiztegi Batua (Gipuzkoa) |



Egoitzan, 2003-IV-25ean, euskaltzain urgazle berriei diploma eman zitzaizkiena.

Ezkerretik eskuinera, behean: Lourdes Otaegi, Jon Aurre, Koro Segurola, Pello Telleria, Pascual Rekalde eta Jon Casenave.

Goian: Jesus Mari Makatzaga, Izaskun Etxebeste, Iñaki Camino, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Erdozia, Aurelia Arkotxa, Patxi Iñigo eta Kepa Altonaga.

Zilarrezko dominak ematea

Aurten, Euskaltzaindiak hiru langileri eman die zilarrezko domina, Akademian 25 urtez lanean aritzeagatik, aitorten gisa. Urtarrilaren 31n, osoko bilkuran, Euskaltzainburuak zilarrezko domina eman dio Begoña Amundarain Uriarteri eta, abenduaren 19ko osoko bilkuran, Resu Orbe eta Lutxi Alberdi langileek jaso dute Euskaltzaindiaren domina. Hirurentzako, esker oneko hitzak izan ditu Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.



Egoitzan, 2003-I-31n, Euskaltzaindiaren zilarrezko domina jasotzen. Ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar eta Begoña Amundarain.

Hernanin eta Donostian, Kardaberaz III. Mendeurrena

Euskaltzaindiak “Kardaberaz urtea” izendatu du 2003. urtea. Agustin Kardaberaz jaiotzaren hirugarren mendeurrena ospatu du aurten Akademiak. Ospakizun hauei otsailaren 27an eman zaie hasiera, Hernaniko Udaletxean egin den ageriko bilkurarekin. Hona hemen egun horretako egitaraua:



Hernaniko Udaletxean, 2003-II-27an, Hernaniko Alkateak Euskaltzaindia hartu zueneko. Ezkerretik eskuinera: Mertxe Etxeberria eta Jean Haritschelhar.

- Ongietorria, Mertxe Etxeberria Hernaniko alkate andreak
- Agurra eta aurkezpena, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak
- Hitzaldia, “Kardaberaz bizitzaren ingurukoa”: Patxi Altuna euskaltzainak

Bestalde, azaroaren 27an, Deustuko Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusean, egin da Kardaberaz omenezko Jardunaldia, Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatuta. Hasiera-ekitaldian, hauek izan dira:

- Gipuzkoako Foru Aldunditik, Joxe Juan Gonzalez Txabarri, diputatu nagusia.
- Hernaniko Udaletik, Txema Mercado, Euskara eta Kultura zinegotzia.
- Deustuko Unibertsitateetik, Jose Maria Guibert, Donostiako Campuseko errektore-ordea.
- Euskaltzainditik, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Bestetik, egun osoan zehar, hauek izan dira hizlariak eta txostenak:

- Patxi Altuna, euskaltzaina: "Kardaberazen bizitza".
- Rosa Miren Pagola, Deustuko Unibertsitateko irakaslea: "Kardaberazen obra".
- Jose Ramon Zubiaur, Deustuko Unibertsitateko irakaslea: "Kardaberazen hizkuntza ideiak".
- Itziar Turrez, Deustuko Unibertsitateko irakaslea: "Linguistika eta prezeptiba *Eusqueraren Berri Onac-en oinarri*".
- Adolfo Arejita, Deustuko Unibertsitateko irakaslea: "Kardaberazen bizkai alderdia".
- Ixiar Bidaola eta Larraitx Zubeldia, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak: "Kardaberazen mezuen eraginkortasuna, hizkuntzaren erabilpenaren arabera".
- Bittor Hidalgo, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea: "Kardaberaz eta aditz atzeratzea euskaraz. Kardaberazen eskola".
- Josu Bijuesca, Deustuko Unibertsitateko irakaslea: "*Euskeraren berri onak*. Kardaberazen tokia hizkuntz elegantziaren auzian".
- Joana Garmendia, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea: "Kardaberazen erretorikari buruzko gogoeta".
- Andres Urrutia, euskaltzaina eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea: "Kardaberazen erretorikatik egungo testugintzara: bideak eta erakutsiak".

Euskaltzaindiaren adierazpenak *Euskaldunon Egunkaria* ixtea dela eta

2003ko otsailaren 20an, Entzutegi Nazionalaren aginduz, *Euskaldunon Egunkaria* euskaraz argitaratzen zen egunkari bakarra itxi egin dute. Hamar lagun atxilotu dituzte, horien artean Joan Mari Torrealдай euskaltzain urgazlea eta *Jakin* aldizkari zuzendaria. Horrezaz gain, Martin Ugalde euskaltzain ohorezkoaren diru kontu guztiak blokeatu dituzte.

Gauzak horrela, bi aldiz adierazi du bere iritzia Euskaltzaindiak: otsailaren 21ean, Zuzendaritzak eginiko prentsa-ohar baten bidez eta, otsailaren 28an, Hernanin bildurik, osoko bilkurak horri buruzko adierazpena kaleratuz.

Hauxe da otsailaren 28an, Hernanin, *Euskaltzaindiaren adierazpena Egunkariaren ixtearen gainean*, Euskaltzaindiak kaleratu duena:

"Euskaltzaindiak, Hernanin bildurik, *Euskaldunon Egunkariaren ixtea* aztertu du, besteak beste, eta honako adierazpen hau aho batez onartu:

Euskaldunok euskaraz dugun egunkari bakarra epaile-aginduz itxi izanak eta horren inguruan atxiloturiko pertsonak aspaldidanik euskara eta euskal kulturaren alde lan handia egindakoak izateak, horietako bat, Joan Mari Torrealдай euskaltzain urgazlea izanik, harriduraz bete du Euskaltzaindia, eta gertakari hauengatik bere kezka larria adierazi nahi du. Orobat, Martin Ugalde jaun euskaltzain ohorezkoaren egoeragatik.

Euskaltzaindiak, beti egin duen bezala, oraingoan ere argi utzi nahi du euskara eta euskal kultura gure gizarte osoaren ondareak direla, inolako ideologia bereizketarik gabe. Horren ondorioz, erakunde honek, Zuzenbideko Estatuaren egoera aintzat hartuta, ezin onartuzkotzat jotzen du, gertakari hauen aitzakiaz, zenbaitzuek gure hizkuntza eta kultura terrorismoarekin elkartzeko darabilten bidegabeko interesa.

Adierazpen honen ale bana helaraziko zaie berehala agintariei, bai eta komunikabide guztiei ere, jendartean ezaguna izan dadin".

Jose Mari Satrustegiren hutsartea betetzea

Jose Mari Satrustegi euskaltzaina hil egin da, martxoaren 27an. Ondorioz, euskaltzain berri bat izendatzeko prozesua martxan jarri da. Martxoaren 28ko osoko bilkuran, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, euskaltzain nafarrak utzitako hutsartea iragarri du. Barne Erregelen arabera, bi hilabeteko epea izan dute euskaltzainek hautagaiak aurkezteko.

Ekainaren 27an, egoitzan egin den osoko bilkuran, Jose Luis Lizundia Askondo hautatu da euskaltzain oso, Jose Mari Satrustegiren hutsartea betetzeko.

Euskaltzaindia Miranda Argan

Bartolomé de Carranza (Miranda Arga 1503 - Erroma 1576) ospetsuaren V. Mendeurrena betetzen den honetan eta, Miranda Argako Udalak eginiko gonbitari baietza emanez, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du, maiatzaren 29an, Nafarroako herri horretan. Horrela, Nafarroako Erriberri merindadean, lehendabiziko aldiz izan da Euskaltzaindia.



Miranda Argako Udaletxean, 2003-V-29an, Bartolomé de Carranza-ren V. Mendeurrenako ageriko bilkuran. **Ezkerretik eskuinera:** Andres Iñigo, Ismael Cuesta, Henrike Knörr, Teresa Iradiel eta Martintxo Elcano.

Hauxe izan da maiatzaren 29an, Miranda Argako Udaletxean izan den ageriko bilkuren egitaraua:

- Maria Teresa Iradiel alkate andrearen *ongiectorria*.
- Henrike Knörr euskaltzainburuordearen *agurra*.
- "Mirandensis, Fray Bartolomé de Carranza de Miranda", Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazle eta historialariaren hitzaldia.
- "Toponimia vasca de Miranda de Arga en tiempos de Bartolomé de Carranza", Martintxo Elcano, Miranda Argako Udaleko zinegotziarena.

- "Benjamin Elcanok bildutako Miranda Argako hiztegiari iruzkinak", Ismael Cuestaren hitzaldia.

Hurrengo egunean, Jose Luis Orella Unzue Deustuko Unibertsitateko Historia irakasle eta historialariak, Bartolomé de Carranza-ren garaiaz egin duen hitzaldia entzutera joan dira euskaltzainak. Ekitaldi hori Udalak antolatu du.

Bestetik, eguerdian, biharamunean ospatzekoa zen Euskararen Egunaren antolatzaileak hartu ditu osoko bilkurak. Bi ordezkariak zurezko irudia eman diote Euskaltzaindiari; hau dago idatzita irudi horretan: *9. euskararen eguna, 2003-05-30. Miranda Arga. B. Carranzaren V. mendeurrena. Euskararen Lagunak Elkarte.*

Euskaltzaindiak liburu-sorta eman die.

Idazkariorde-kudeatzailearen jubilazioa

Ekainaren 26an jubilatu da Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindian 34 urtez lanean jardun ondoren. Biharamunean, ekainaren 27an, egoitzan egindako ekitaldian, pergaminoa eman dio Jean Haritschelharrek. Honela dio pergaminoak: *"Euskaltzaindiak Jose Luis Lizundia Askondo lankide jaun leialari, Erakunde honetan 1969-2003 urteetan egindako lan baliotsuaren esker ona adierazteko pergamino hau eskaintzen dio. Bilbon, 2003.eko ekainaren 27an"*. Euskaltzainburuak eta Idazkariak sinatua.



Egoitzan, 2003-VI-27an, jubilatzean Euskaltzaindiaren pergaminoa jasotzen. **Ezkerretik eskuinera:** Jose Luis Lizundia eta Jean Haritschelhar.

Jose Luis Lizundia Askondoren jubilazioak utziriko hutsunea betetzeko, Euskaltzaindiak ekainaren 26an, Bilbon egindako Zuzendaritza-bilkuran, hark orain arte izandako idazkariorde eta kudeatzaile karguak banatzea erabaki du.

Uztailaren 17an, Donostian egindako Zuzendaritza-bilkuran kudeatzaile kargurako Juan Jose Zearreta Urigoitaldekozea jauna eta, idazkariorde kargurako Pello Telleria Zeberio jauna izendatu dira; biharamunean, Euskaltzaindiak, Donostian egindako osoko enbatzarrean, izendapen horiek berretsiz.

Euskal Herria izenari buruzko txostena

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hala eskatuta, uztailaren 18an, Donostian eginiko osoko bilkuran, *Euskal Herria* izenaren inguruko txostena onartu du Euskaltzaindiak. Hauxe da:

“Aspaldiko mendeetatik oso hedatua izan da *Euskal Herria* hitza kultur ezaugarri aski jakineko herrialdea izendatzeko, politika eta administrazio mugen nahiz ezberdintasun historikoen gainetik erabilia izan dena. Izen hori euskara + herri hitzetatik sortua da, hots, ‘euskararen herria’, hor ageri den euskal forma ohikoa baita hitz elkartuetan (cf. *aizkora*, baina *aizkolapustu*, *gari baina galburu*, etab). Era berean, esan behar da inoiz pluralean ere erabili izan dela: euskal herriak, horren hasierako esangura ‘euskararen lurraldeak’ izanik. Letra xeheaz idatzi izanak aski garbi erakusten digu bere jatorrizko adiera.

Euskal Herria-ren erabilera orokor horren lekukoa dugu, besteak beste Joanes Leizarraga, Lapurdiko apaiz protestantea, 1571n argitaraturiko *Testamentu Berriaren* euskal itzultzailea. Irakurle guztiek erraz ulertzeko moduko hizkera aurkitzeko zailtasunaz mintzatzean, honela zioen:

“...bat bederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den”¹

Beste lekukotasun ezaguna Pedro Axular idazle nafarrarena dugu, 1643ko *Gero* aszetika-liburuaren egilearena. Irakurleari (“Iracurtçailleari”) zuzenduriko hitzaurrean, gai berberaz mintzo da, eta honela dio:

“Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscarazco minçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian, Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertce anhitz leccutan”².

Hurrengo mendeetan ere izen hau erabiltzen segitu zen. *Euskal Herria* izena (hainbat grafiarekin), zazpi herrialde historikoak aipatzeko, nabarmen ageri da, adibidez, Gratien Adéma (1828-1907) abade lapurtarraren Gauden gu eskualdun eta Eskualdunak poemetan, non tradiziozko zazpi probintziak azaltzen diren. Dakusagun, esaterako, bigarrenaren atal hau:

“Lapurdi, Nabarpe ‘ta Zubero, Eskualherriak Frantzian; Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarro, berdindire Espainian”³.

Are gehiago, denboraren joanean *Euskal Herria* izena gaztelania eta frantsesa hizkuntzetara ere hedatu zen. Estatu arteko mugaz alde bateko eta besteko erakunde eta agerkari batzuek ere izen hori ukan dute, esaterako: Sociedad *Euskal Herria* elkarteak, XIX. mendearen azken herenean Jaurerriko diputatu nagusi izandako Fidel de Sagarminagak Bilbon fundatuak; *Euskal-Erria* aldizkariak, Jose Manterolak 1889an Donostian sortuak; Los Angelesko Californiako *Eskual Herria* astekariak 1893-1898); La Platako *Eskual Herria* astekariak, Buenos Airesen 1898an argitaratuak, edo Baionako *Eskual Herria* astekariak, 1898an sortuak.

¹ Pasarte hau “Heuscalduney” izenaz irakurleentzat eginiko hitzaurrean ageri da, Joana Nafarroako erreginari bidaliriko eskutitz elebidunaren ondoan (euskaraz eta frantsesez). Ez dakar orrialde-zenbakirik. Euskaltzaindiak egindako faksimil-edizioan, Bilbao, 1990, ordea, 254. orrialdean ageri da: aipaturiko argitalpen hau Kultura Ministerioaren diru-laguntzaz egin zen, Hugo Schuchardt-ek eta Theodor Linschmann-ek 1900an Strasburgen kaleraturiko *I. Leizarragas baskische Bücher von 1571* liburutik abiatuta.

² *Guero*, Bordele, 1633, 17. or. Ikus, halaber, Euskaltzaindiak 1988an Bilbon plazaraturiko faksimil-edizioa, berau ere Kultura Ministerioaren diru-laguntzaz aterea, eta liburuaren iturri izan zen Frai Luis Granadakoaren laugarren mendeurrenean argitaratua.

³ Bertso hauek guztiok, hurrenez hurren, *Revista Internacional de Estudios Vascos* 3, 1909, 396. eta 399. orrialdeetan irakur daitezke. Ediziorik eskuragarriena, ordea, beharbada Alex Bengoetxearena dateke: *Kantikak eta neurtitzak*, Ediciones Mensajero - Gero, Donostia, 1991. Hemen aipaturiko pasarteok, hurrenez hurren, 166 eta 177. orrialdeetan daude edizio horretan.

Euskal kantutegiak ere kontu ezineko aipamenak dakartza *Euskal Herria*-z. Bestek beste, Done Mikel Aralarkoaren herri kanta tradizionala dugu, errepika hau duena:

“Miguel, Miguel, Miguel guria,
Zaizu, zaizu Euskal Herria”.

Juan de Berak, predikari kaputxino nafarrak, 1834an Oiartzunen, predikatu zuen. Sermoiaren lehen bi orrialdeak euskaraz idatzi zituen, eta gainerako testua gaztelaniaz, eta Frantzisko Xabierkoaz ari zelarik, honela zioen:

“Jayo cela gure Españían, uskal Errian, Nafarruan”⁴.

Baina, erakundeen izenetan agertzeaz gainera, *Euskal Herria* normalki erabili izan da edozein ideologi arlotan. Hona hemen adibide batzuk, aurki litezkeen ugarien artetik jasoak:

Salvador Castilla Alzugaray-k (Iruñea 1819 - Donostia 1884), errepublikazaleak, 1878.eko uztailaren 15ean hitzaldi bat egin zuen, eta bertan bilduei Euskal-Erria maitatzen segitzeko eskatu⁵.

Francisco Navarro Villoslada eleberrigileak (1818-1895), tradizionalista eta Vianan jaiokak, “De lo prehistórico en las Provincias Vascongadas” idazlanean (1877) honela dio:

“...pero ellos no se dan a sí propios ese apelativo, ni el de vascongados, ni otro más que el de escualdunas bajo cuya denominación comprenden a todo el que habla la lengua euscara, sea español o francés, llamando asimismo escualherria, literalmente tierra de escualdunas, a todas las provincias que hablan la lengua euscara y pueblan ambas vertientes de los Pirineos occidentales: navarros, guipuzcoanos, alaveses y vizcaínos, españoles; suletinos y laburdinos, franceses”⁶

Román Zubiaga buruzagi karlista bizkaitarrak, orduan, kadete zen Santiago Palacio-rekin Gernikako Batzar Etxerako bisitan zihoala, honetara esan zion:

“...las tribus más celosas de su independencia refugiáronse en las montañas de aquende y allende el Pirineo, constituyendo la Euskalerría, es decir, el país de euscaldunac, de los que hablan el idioma éuskaró...”⁷.

Iruñeko alaba zen Dolores Baleztena (1895-1989) idazle karlista nafarrak berak ere *Euskalerría* izena maiz erabiltzen du, adibidez, euskal zibilizazioari buruz ari denean:

“...la figura del bersolari, ese admirable bardo de la Euskalerría genuinamente popular, que con asombrosa agilidad de imaginación y habilidad en versificar, riñe torneos de ingenio discutiendo por los temas más dispares [...] Dignos discípulos del inmortal Iparraguirre, también voluntario de Carlos V, que con su voz arrebatadora, subyugaba auditorios de naciones extranjeras, cantando a la amacho maitia, al blanco querube de Euskalerría, a España, “lur hoberikan ez da Europa Guziyan”, la tierra mejor cual no hay otra en Europa...”⁸.

Jesús Etayok 1921eko maiatzaren 17an El Pensamiento Navarro-n “*Ante el cuarto centenario de la herida de Iñigo de Loyola*” artikulua idatzi zuen. Beste batzuen artean, honako hau irakur daiteke: “...como vascos, porque, a pesar de la gran desviación histó-

⁴ Patxi Ondarra: “Polikarpo Aitak zituen Euskal Esku-Idatzi Zaharren Aurkezpena” in *Euskera*, Euskaltzaindiaren agerkarian, 26, 1981-2, 640. or. ; eta, *Diario de Navarra*-n, “España, País Vasco, Navarra”, 12-02-2003, 21. or.

⁵ Angel García-Sanz Marcotegui: “Los liberales navarros ante la irrupción del euskerismo”, Roldan Jimeno Aranguren koordinaturiko liburuan: *El euskera en tiempo de los éuskaros*, Gobierno de Navarra-Ateneo Navarro, Iruñea, 2000, 145-218. or.; Salvador Castilla Alzugaray-ren aipua 152-153. orrialdeetan dakar.

⁶ Carlos Mata Induráin: “Amaya da asiera: La actitud de Navarro Villoslada ante el vascuence” Roldan Jimenok koordinaturiko obra aipatuan, 113-144. or. Pasarte hori 120. orrialdean dago.

⁷ José Javier López Antón: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, Pamplona, Pamiela, 2000, 134. or. Santiago M. Palaciok Zubiagaren ahotik entzundakoa *El batallón de Guernica* bere liburuan bildu zuen, Editorial Tradicionalista,artzelona 1917, 80. or.

⁸ Dolores Baleztena Azcarate: *Saski naski de Leiza*, Pamplona: Diputación Foral de Navarra, Dirección de Turismo, Bibliotecas y Cultura Popular, 1976, 12. or.

rica padecida por nuestra raza, Ignacio era vasco y todos los vascos somos participantes de las glorias de Euskalerría...”⁹.

Honen kontura egoki datorke Oriamendi ere aipatzea, karlisten himnoa, honela baito:

“Gora Espainia eta Euskal Herria!
Ta bidezko errege.
Maite degu Euskal Herria,
Maite bere fuero zaharrak”.

Era askotara adierazi izan da gatzelaniaz eta frantsesez ikusten ari garen kontzeptu hau: Vasconia, País Vasco, País Vasco-Navarro, Vasconie, Pays Basque. Azpimarratzekoa da País Vasco frantsesezko Pays Basque-ren oihartzuna dela, eta batez ere XIX. mendean zehar hedatu zela. Lehenago Basque forma hutsa erabiltzen zen, substantibo gisa; esaterako, Jean Baptiste Nolin-en mapa famatuan (Paris, 1704) Mer de Basque irakur daiteke, eta horren azpian latinez Tarbellicus sinus ageri da.

Bada, aipatutakoez gainera, liburu usaineko izen bat: Euskaria, eta hortik datoz euskaro eta euskarien adjektiboak. Hiru izenok, begi bistakoa den bezala, hizkuntzaren izenetik datoz, hots, euskara-tik. Gogora ditzagun, besteak beste, Asociación Euskara de Navarra, 1877an fundatua, eta beronek hurrengo urtean sortu zuen Revista *Euskara*.

Mendea amaitu baino lehentxeago Sabino Arana-Goirik (1865-1903) Euskadi hitz berria sortu zuen, horrela *Euskal Herria* baztertzeko asmoz. Horretarako, noski, gorago aipatu dugun Euskaria eduki zukeen gogoan, eta –di atzizki lokatiboa erantsi zion. Izen horrek, –bere asmatzaileak aurrenik s-rekin idatzi (Euskadi) eta geroago z-rekin (Euzkadi) hobetsi zuenak– erabilera nabarmena izan du. Halere, hasiera-hasieratik izen horrekin bat ez zetozen boz ugari entzun ziren. Beste batzuen artean, azpimarratzekoak dira Arturo Kanpion iruñear poligrafo eta historialariak horri buruz idatzirikoko artikulu garratzak, eta bereziki “Sobre el nuevo bautizo del País Basko” deritzona, *Revista Internacional de Estudios Vascos* 1, 1907, 148-153. orrialdeetan agertua. Halako ideologia baten izenean *Euskal Herria* ordezkatzeko saio horrek gorabehera sonatu batzuk ekarri zituen aldean, esaterako, 1918an, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Lehen Kongresuan Resurrección M^a Azkuek, 1951n hil arte Euskaltzainburua izango zenak, pairatu behar izan zuena.

Urteak aurrera joan ahala, *Euskal Herria* izenak, bere adiera neutroarekin, iraun egin du, Euskadi-ren lehiakidetza gorabehera. Alferrik izango litzateke hona adibide gehiago ekartzea. Aski dateke Bonifacio Etxegarai Korta jaunak, Epaitegi Goreneko idazkari eta euskaltzain osoak, Espasa Entziklopediarako (1929) idatzi zuen “Vasconia” artikulua gogoratzea; Batzorde Eragileen (Diputazioen) Proyecto de Estatuto Vasco-Navarro delakoa (1932), euskaraz *Euskalerría* erdarazko País Vasco-Navarro-ren baliokidea ematen duena, edo TVE-ren *Euskal Herria* programaz oroitzea, trantsizioa hasi bezain laster eman zena (1976-1977).

Testuinguru honetan, azpimarratzekoa da Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 1. artikuluan (1979) ageri den nahastea, honela dioenean: “El Pueblo Vasco o Euskal-Herria [...] se constituye en Comunidad Autónoma dentro del Estado Español bajo la denominación de Euskadi o País Vasco”¹⁰. Euskal Kontseilu Nagusiaren garaian ere, Euskaltzaindiak, Baionako ordezkarietan 1979.eko urtarrilaren 26an egindako batzarrean, aho batez erabaki zuen haren Lehendakariari gutun bat bidaltzea, “Euskal Herria hitz tradizionala baztertua izan ez zedin”¹¹. Horrez gainera, itzal handiko pentsalari batzuek, José Miguel de Azaola saiolariak, beste anitzek bezala, artikulua horren testuarekin beren desadostasuna argi erakutsi zuten, bai eta *Euskal Herria* –ageriz edo estaliz– saihesteko asmoagatik ere.

⁹ José Javier López Antón-ek aipatua: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, 191. or.

¹⁰ Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, *Boletín Oficial del Estado*, 306. zk., 1979-12-22.

¹¹ Ikus testu osoa Euskaltzaindiaren organoa den *Euskera* aldizkarian, 24, 1979-1, 115-117. or.

Erakunde akademiko honek, politika alorretik landa eta sineste zein ideologia guztien gaintetik, otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuan finkaturiko xedeetako bati erantzunez, zeinetan Euskaltzaindiari hizkuntza jagoteko helburua onartzen zaion, nahitaezkoa dakusa *Euskal Herria* izenaren egokitasuna eta zehaztasuna berrestea. Hitz hori guztiena da, eta horregatik ezin da alderdikieriaz erabili, zoritxarrez inoiz gertatu eta orain ere gertatzen bada ere. Hori, jakina, herrialde bakoitzaren deitura bereziari eta izen politiko-administratiboei kalterik egiteke.

Gorago adieraziriko guztiaren argitan, Euskaltzaindiak, zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko, *Euskal Herria* izenaren egokitasuna, zuzentasuna eta zehaztasuna berresten du, eta izen hori ez dela errealitate politiko administratibo konkretu baten balio-kide ez asimilagarri. Aldi berean, gogorarazi nahi du mendez mendeko tradizio luzea errespetatu beharra, eta inork eta ezerk ez du hori hausteko, eteteko edo aldatzeko eskubiderik”.

*Euskaltzaindiak Donostian, bi mila eta hiruko uztailaren hamazortzian egindako osoko bilkuran onarturiko testua*¹².

* * *

“Nafarroa Oinez 2003” Irunberrin

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Euskaltzaindiak parte hartu du Nafarroa Oinez-eko ekitaldietan. Aurtengo jaia Irunberrin egin da. Irailaren 19an, ekitaldi bana egin dute Euskaltzaindiko Onomastika eta Sustapen batzordeek.



Euskaltzainak Irunberriko Arangoiti Ikastola bisitatzen, 2003-IX-19an. Ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo, Patxi Galé, Izaskun Aldaz, Txomin Peillen, Jorge Cortés Izal, Felix Mugurutzta eta Mikel Gorrotxategi.

¹² Euskaltzaindiak adierazpen-txosten hau egin eta gero, Joan Perez Lazarragakoaren eskuizkribuak, orain arte ezezagunak, plazaratu dira, eta Arabako idazle honek 1567aren inguruan eginiko poema batean ere, “Loa de las damas y galanes baascongados” deritzonengan, hiru aldiz ageri da *Euskal Herria* hitza, *Eusquel Erria* grafiaz: “...çegaiti doçun eusquel erria / aynbat ventajaz dotadu...”; “...çegaiti eusquel errian dira / ederr guztioc dotadu...”; “...çeñetan ditut eçautu eusquel erriau oy nola eben / erregue batec pobladu...” Beraz, gaur ditugun datuen argitan, Lazarragarena da *Euskal Herria* hitzaren lekukotasunik zaharrena.

Sustapen batzordeak antolaturik, VII. *Jagon* Jardunaldia egin da, iaz Hendaian lan-tzen hasitako gaiari jarraipena emanez, hots, eliza eta euskara. Oraingoan, Nafarroako elizak euskararekiko izan duen jarrera aztertu da.


Horren ostean, onomastikaren gaineko ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak. Ekitaldi horretan herritarrei eta, bereziki, Arangoiti Ikastolako gurasoei honako gaia azaldu zaie: "Irunberriko euskal toponimia eta lexikoa". Egitaraua, hauxe:

- *Agurra*, Joaquín Garde, Irunberriko alkateak.
- *Aurkezpena*, Andres Iñigo, Onomastika batzordeburu eta Nafarroako ordezkariak.
- "Irunberriko euskal toponimia eta lexikoa", Eusebio Rebolé, abokatu eta herriko historialariak.

Atharratzen, Manuel Intxausperen omenez

Manuel Intxauspe zuberotar euskal idazlearen omenez, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Atharratzen, irailaren 25ean, herriko Salan. Hau izan da egitaraua:

- Atharratzeko auzapez Pierre Erbin jaunaren *agurra*.
- Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren *sarrera-hitzak*.



Atharratzen, herriko Salan, 2003-IX-25ean, Manuel Intxausperen omenezko ageriko bilkura. Ezkerretik eskuinera: Jakes Sarrailet, Junes Casenave eta Jean Haritschelhar.

- Jakes Sarrailet irakaslea: "Euskaltzaletasuna gaur Basabürüan".
- Junes Casenave, Altxaiko erretorea: "Nor zen Intxauspe kalonjea".
- Txomin Peillen euskaltzaina: "Elizaren etsaiak XIX. gizaldian Intxausperen arabera".
- Jean Haritschelhar euskaltzainburua: "Intxauspe Axularren zensuratzaile, Gero-ren gaurkotzaile?".
- Pierre Agerre ikertzailea eta Pierre Charriton euskaltzaina: "Intxausperen altxorra Zunharretako Harizmendi haren sortetxekoen eskuetan".

Ageriko bilkura egin den gelan, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan Intxausperi buruz dauden liburuen erakusketa egin da, Pruden Gartzia zuzendariaren gidaritzapean.

Hurrengo egunean, 26an, osoko bilkura egin du Euskaltzaindiak, Atharratzeko Herriko Etxean.

Nafarroako euskalkiei buruzko jardunaldiak

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak antolatuta, Nafarroako euskalkiei buruzko jardunaldiak burutu dira urriaren 22an eta 23an, Uhartan, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan, Zubiarte eraikinean.



Uhartan, Zubiarte Ikastetxean, 2003-X-22an, Nafarroako euskalkiei buruzko jardunaldiak. Ezkerretik eskuinera: Julen Calvo, Pedro Pegenante eta Henrike Knörr.

Urriaren 22an, jardunaldien lehen eguna izan da. Hizlariak hauek izan dira:

- Pedro Pegenante, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.
- Henrike Knörr, euskaltzainburuordea.
- Iñaki Camino, euskaltzain urgazlea: "Nafarroako euskalkiak. Abiaturu teoriko-metodologikoa".
- Gotzon Aurrekoetxea, euskaltzain urgazlea: "Nafarroa kartografia linguistikoa".

Biharamunean, urriaren 23an, hauek mintzatu dira:

- Juan Luis Goikoetxea, euskaltzain urgazlea: "Etxeko euskara eta euskara batua Nafarroako eskoletan".
- Patxi Iñigo, euskaltzain urgazlea: "Euskara batua eta euskalkiak Nafarroako hezkuntzan: inkesta baten emaitzak, kezak eta ondorioak".
- Paskual Rekalde, euskaltzain urgazlea, "Euskara batua eta euskalkiak Nafarroako Administrazioan: inkesta baten emaitzak, kezak eta ondorioak" gaiaz mintzatu da.

Sabino Arana: euskara eta kultura Jardunaldia

Sabino Arana Elkargoak eta Euskaltzaindiak, "Sabino Arana: euskara eta kultura" izeneko Jardunaldia antolatu dute. Jardunaldi hori Bilbon egin da, azaroaren 20an, Euskaltzaindiaren egoitzan.



Egoitzan, 2003-XI-20an, Sabino Arana: euskara eta kultura-ri buruzko jardunaldia. **Ezkerretik eskuinera:** Paulo Iztueta, Jose Luis Aurtenetxe, Xabier Kintana, Joseba Agirreazkuenaga eta Jose Luis Lizundia.

Hona hemen egitaraua:

- Erakunde bietako ordezkarien *agurra*: Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria eta Jose Luis Aurtenetxe Sabino Arana Elkargoko buruordea.
- "Euskara: egitasmo politikoa. Sabino Aranaren aurrekoen eta ondokoaren asmoak eta ekintzak". Joseba Agirreazkuenaga, euskaltzain urgazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.
- "Sabino Arana eta Eusko Pizkundea". Paulo Iztueta, idazlea.
- "Sabino Arana eta euskal erakundetzea". Jose Luis Lizundia, euskaltzaina eta Onomastika batzordekidea.
- "Euskalgintzaren gaurko egoera". Mahai-ingurua:
 - Andres Urrutia, Euskaltzaindiko *Jagon* sailburua eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.
 - Txomin Peillen, euskaltzaina eta idazlea.
 - Itziar Laka, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.
 - Moderatzailea: Jose Mari Iriondo, euskaltzain urgazlea eta kazetaria.

Bestetik, Euskaltzaindiak, dituen Sabino Aranaren gutunen kopia digitalizatuak eman dizkio haren izena daraman Elkargoari. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan gordetzen diren zazpi gutunez osatutako CDa, Xabier Kintana Akademiako idazkariak eman dio Jose Luis Aurtenetxe jaunari, Sabino Arana Elkargoak bere artxiboa aberastu dezan. Gutun horietatik sei argitaratuta daude, baina beste bat argitaragabea da.

Diruzainaren kargu-uztea

Jose Antonio Arana Martija diruzainak dimisioa aurkeztu du, osasun arazoengatik. Abenduko batzarrean iragarri du Euskaltzainburuak hutsartea eta, Barne Erregelen 11.7 atalak dioena betez, 2004ko urtarrileko osoko bilkuran izendatuko da diruzain berria. Arana Martija euskaltzaina 1988tik 2003ko abendura arte izan da Euskaltzaindikoko diruzaina.

I.2. BATZAR BEREZIAK

XIII. Barne Jardunaldiak

Euskaltzaindiak urte birik behin egiten ditu Barne Jardunaldiak, 1979tik geroztik. Lehendabizi, Foruan izan ziren eta, harrez geroz, Loiola, Angosto, Lekaroz, Angelu, Lazkao, Ziburu, Zornotza, Legutiano, Iraizotz, Baionan eta Lekeition antolatu dira, beti ere herrialdeak tartekatuz. Aurten Hernanin izan dira, otsailaren 28an eta martxoaren 1ean, Udaletxean.

Jardunaldi hauetako lehen partean, Akademiak, bere barne hausnarketa egiteaz gain, dituen egitasmo eta lanen egoera aztertu du eta aurrera begira egin behar diren urratsak markatu. Ohiko batzorde iraunkorren ordenari jarraituz, honela ikusi dira: *Iker* Saileko Orotariko Euskal Hiztegia, Hiztegi Batuko lantaldea, Gramatika, Hizkuntza Atlas, Onomastika, Literatura eta Euskara Batua; *Jagon* Saileko Corpus eta Sustapen alorrak; Lege-Ekonomia batzordea eta egiturazko batzorde-zerbitzuak: Azkue Biblioteka eta Argitalpen eremua. Batzorde eta egitasmo hauen guztien buru-idazkariek, dagozkien txostenak aurkeztu dituzte, jarraian eztabaida irekiz.

Jardunaldi hauen ondorioz, batzordeburu eta kide berriak izendatu dira, martxoaren 28ko osoko bilkuran. (*Ikus* izendapenak, VI.2. atalean).



Hernaniko Udaletxean, 2003-II-28an, XIII. Barne Jardunaldiak. **Ezkerretik eskuinera:** Patxi Altuna, Juan Mari Lekuona, Emile Larre, Patxi Goenaga eta Ibon Sarasola.

I.3. KANPOKO JARDUERAK

Okzitaniako Tolosan

Midi Pyrénées eskualdeak antolaturik, Okzitaniako Tolosan, izan da martxoaren 19an egun bateko Jardunaldia, *Toponymie et aménagement du territoire* izenarekin. Adituen artean, Henrike Knörr Onomastika batzordekidea izan da hizlari, txosten honekin: “Toponymie et législation dans la Communauté Autonome Basque et Communauté de Navarre”. Gainera, Euskaltzaindiaren zenbait argitalpen erakusgai jarri dira.

Institut d'Estudis Catalans-eko Filologia batzordeburua, Euskaltzaindian

Martxoaren 7an, Joan Martí i Castell, Institut d'Estudis Catalans-eko Filologia batzordeburua, Euskaltzaindiaren egoitzan izan da. Filologia Erromanikoetan doktorea, UNESCO-ren Hizkuntzak eta Hezkuntza izeneko Katedraren irakasle titularra da Joan Martí, besteak beste. Martí etorri den egunean, Akademiak 2002ko Azkue Sariak irabazi dituzten idazleen izenak jakinarazi ditu, bai eta sariak eman irabazleei. Hori dela eta, Joan Martí mahaiburu izan da, Jean Haritschelhar euskaltzainburuarekin batera.



Egoitza aurrean, 2003-III-7an. **Ezkerretik eskuinera:** Jose Luis Lizundia, Joan Martí i Castell, Jean Haritschelhar, Henrike Knörr eta Juan Jose Zearreta.

Historialari euskaldunen II. Topaketak

Martxoaren 28an ospatu dira, Donostian, *Historialari euskaldunen II. Topaketak*, Udako Euskal Unibertsitateko Historia Sailak antolaturik. Gonbidatuta zeuden

Euskaltzaindiko bi ordezkari hauek txosten bana irakurri dute: Iñaki Kareaga, Informatika eta telekomunikazio arduradunak: “Nola digitalizatzen diren dokumentu historikoak: *Dagerre* egitasmoa”; Pruden Gartzia, Azkue Bibliotekako zuzendariak: “Izena duen guztia omen da: Euskal Herria”.

Kataluniako Toponimiari buruzko I. Jardunaldietan

Uztailan, Euskaltzaindiak parte hartu du Bellver de Cerdanya herrian egin diren Toponimia katalanari buruzko I. Jardunaldietan. Generalitat de Catalunya, Institut d’Estudis Catalans-ek eta Consorci per a la Normalització Lingüísticak antolatua, Jardunaldien xedea toponimiaren garrantziari erreparatzea izan da, bai eta hizkuntzalaritzan diharduten guztiei, gai horren gaineko informazioa eta prestakuntza ematea ere.

Euskaltzaindiaren partaidetzari dagokionez, bi ordezkari joan dira: Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkaria eta Jose Luis Lizundia, euskaltzain osoa batzordeko kidea. Biok prestatu duten hitzaldiak ondoko izenburua du: “Normativización, oficialización y normalización de los topónimos en la Comunidad Autónoma Vasca y Comunidad Foral de Navarra”. Bertan, Akademiaren zeregina azaltzeaz gain -izendegi ororekiko ikerketa finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edo aholkularitza lanetan dihardu Euskaltzaindiak- eguneroko lanean suertatzen diren arazoak azaldu dituzte.

Euskaltzaindikoekin batera, Galiziako Akademiako kideek ere parte hartu dute Jardunaldietan.

Euskararen presentzia Frantziako Itzulian

Uztailaren 23an, Frantziako Itzulia Euskal Herrian sartu da eta Baionan izan du helmuga. Hori dela eta, euskararen presentzia bermatzeko, Euskal Herrian Euskaraz erakundea eta Batasuna alderdi politikoa, akordio batera heldu ziren Jean Marie Leblanc Frantziako Itzuliaren zuzendari ordezkariarekin. Gero, Espainiako komunikabideen eta Gobernuaren presioaren eraginez, akordioa bertan behera gelditu zen. Euskara baztertuta gera ez zedin, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak bitartekari lanari ekin dio eta uztailaren 9an, gutuna bidali dio Jean Grenet, Baionako auzapezari, honek Leblanc-i bi eskari egiteko eskatuz: euskararen presentzia bermatzea Baionako etapan eta euskal esatari bat izatea helmugan. Azkenean, uztailaren 23an, euskaraz mintzatu dira Frantziako Itzulian.

Jardunaldia Aramaion

Aramaion, uztailaren 1etik 4ra, II. Uda Ikastaroa egin da, Arabako Foru Diputazioak eta Aramaioko Udalak antolatua, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin. Aurtengo gai nagusia hau izan da: “Euskal Herria eta inguruko lurraldeak: I. – X. mendeak”. Lau egun horietan, hitzaldiak eman dira Kultura Etxean eta liburu, artikulu eta mapak erakutsi, gai nagusi horrekin lotuak. Material gehiena Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekakoa izan da, antolatzaileek horretarako eskatua. Henrike Knörr, Arabako ordezkaria izan da bitartekaria.

Espainiako Konstituzioaren euskarazko bertsioa, Espainiako Senatura eraman

Irailaren 10ean, Espainiako Senatura joan dira Euskaltzaindiaren ordezkariak, Estatuko Konstituzioaren euskal itzulpen eguneratua eramatera. Euskaltzanditik Andres Urrutia, Lege azpibatzaileburua eta Juan Jose Zearreta, kudeatzailea joan dira. Espainiako Konstituzioaren 25. urteurrena bete den honetan, Senatuak berak eskatu zion Euskaltzaindiari, hilabete batzuk lehenago, testu horren euskarazko bertsio berriztatua.

Senatuan, jaun hauek hartu dituzte Akademiaren ordezkariak: Juan José Lucas, Senatuko buruak; Javier Rojo, Arabako senadore eta Lehen Buruordeak; Damián Caneda, Mahiko Lehen Idazkariak eta Manuel Cavero, Letradu Nagusiak. Itzulpen gaurkotu hori Euskaltzaindiko Lege azpibatzaileak egin du.

Henrike Knörr euskaltzainburuordea Armenian

Armeniako Zientzia Akademiak gonbidaturik, irailaren 15etik 22ra Armenian izan da Henrike Knörr, euskaltzainburuordea. Egun horietan, Armeniologiaren I. Mundu Biltzarra egin da eta Knörr jauna atzerriko gonbidatuen artean izan da. Biltzarretik bereiz, bi hitzaldi eskaini ditu Erevango Unibertsitatean. Vahan Sarkisian euskaltzain ohorezko armeniarrek egin du hizlariaren aurkezpena.

“Noves tecnologías aplicades a la dialectología” Jardunaldiak Bartzelonan

Abenduaren 15ean, Bartzelonako Unibertsitateak antolatutako “Noves tecnologías aplicades a la dialectología” izeneko Jardunaldietan, Iñaki Kareaga informatikaria eta Gotzon Aurrekoetxea, euskaltzain urgazlea eta Atlasgintza lantaldeko arduraduna izan dira. Jardunaldi hauen xedea, Atlasgintza, dialektometria eta soinu-atlasak aztertzea izan da.

Atlasgintza sailean, Euskararen Herri Hizkeren Atlasari buruzko (EHHA) argibideak eman ditu Gotzon Aurrekoetxeak. Bestalde, Institut d’Estudis Catalans-eko Ferran Martí informatikariarekin ere hitz egiteko aukera izan du Iñaki Kareagak. Hauek izan dituzte hizpide bi teknikariek: batetik, bi erakundeen egitasmoak eta, bestetik, Institut-ek Onomastikarako erabiltzen duen –eta, agian, Euskaltzaindiarentzat ere interesgarria izan daitekeen– tresna informatikoa.

Onomastikari buruzko jardunaldiak, Iruñean

Azaroaren 20an eta 21ean, “Sociedad de Estudios Históricos de Navarra” elkarteak Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearekin antolaturik, Onomastikari buruzko Jardunaldiak egin dira Iruñean. Bertan hauek hartu dute parte: Henrike Knörr, buruordea “Problemas de la onomástica vasca” gaiaz mintzatu da; Andres Iñigo euskaltzainak eta Nafarroako ordezkariak “Nombres propios de persona en la oiconimia navarra” txostena aurkeztu du eta, Patxi Salaberri euskaltzain urgazleak, “Origen y significado de la toponimia” gaia jorratu du.

Euskararen gaineko Jardunaldiak Iruñean

Abenduaren 15ean hasita eta 19ra bitartean, “Euskara, bere baitan. Bost ikusmira berezko” izenburupeko Jardunaldiak burutu dituzte Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak, Larraona Ikastetxe Nagusian. Bost egunez, bost hizlarik eta beste horrenbeste moderatzailek gatzelaniaz jorratu dituzte euskararen inguruko hainbat gai.

Hizlarien artean, Euskaltzaindiko hainbat ordezkari izan dira:

- Jean Haritschelhar, euskaltzainburua: “El euskera desde la Academia de la Lengua Vasca”. Andres Iñigo Nafarroako ordezkariak aurkeztu du Euskaltzainburua.
- Pello Salaburu, euskaltzaina: “Euskera y Universidad”.
- Koldo Zuazo, euskaltzain urgazlea: “Los dialectos de Navarra y su aportación al euskera unificado”.

I.4. EUSKALTZAINDIA ERAKUNDEETAN

Euskaltziandiak, erakunde batzuen hainbat ataletan parte hartzen du. Ondoren, erakunde eta atal horiek zeintzuk diren, batetik, eta ordezkariak nortzuk diren, bestetik, zehazten da:

Erakundea	Ordezkaria
Hezkuntza Ministerioaren Biblioteka Nazionala	Euskaltzainburua
Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordea	Euskaltzainburua
Nafarroako Euskara Kontseilua	Euskaltzainburua eta Nafarroako ordezkaria
EiTBko Administrazio Kontseilua	Jose Luis Lizundia
Eusko Jaurlaritzako Euskal Gizataldeekiko Harremanak	Henrike Knörr
Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Kontseilua	Juan San Martin
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko EIMA	Joxe Ramon Zubimendi
Eusko Jaurlaritzako Toponimia Batzordea	Jose Luis Lizundia eta Mikel Gorrotxategi
Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordea	Andres Urrutia
Fundación Germán Sánchez	Jose Antonio Arana
HABE	Andres Urrutia
Gasteizko Plan Estrategikoaren Batzordea	Arabako ordezkaria

1.5. SARIAK ETA OMENALDIAK

Patxi Altunaren biografia

Otsailaren 8an, Azpeitian, hiri horretako Uztarría Kultur Elkarteak Patxi Altuna euskaltzainari buruzko biografia aurkeztu du, Josune Etxeberriak -Patxi Altunaren ikasle ohiak- idatzia.

“Urrezko idazluma” Karmelo Etxenagusiarentzat

Bilboko XXXIII. Liburu Azokak, “Urrezko idazluma” saria Karmelo Etxenagusia oho-
rezko euskaltzain eta Bilboko Gotzain Laguntzaileari eman dio, ekainaren 2an.

Martin Ugalde, 2002ko Euskal Herritar Unibertsala

Martin Ugalde ohorezko euskaltzainak –Ainhoa Arteta sopranoarekin batera– jaso du Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Kutzaren 2002ko “Euskal Herritar Unibertsala saria”.

Juan San Martinen omenezko jardunaldiak

Donostian, azaroaren 11tik 14ra, Koldo Mitxelena Kulturunean, Juan San Martin euskaltzain osoaren omenez jardunaldiak antolatu dira, izenburu honekin: “Juan San Martin: euskal kulturaren aldeko konpromisoa, testigantza eta zerbitzua”. Hizlarien artean euskaltzain oso hauek parte hartu dute: Jean Haristchelharrek, Miren Azkaratek eta Jose Luis Lizundiak

Hondarribiko Urrezko Domina Juan San Martini

Abenduaren 30ean, Hondarribiko Udalak herriko urrezko domina eman dio Juan San Martin euskaltzainari.

2003ko Manuel Lekuona saria Jesus Atxari

Eusko Ikaskuntzaren 2003ko “Manuel Lekuona Saria” Jesus Atxa euskaltzain oho-
rezkoari eman diote. 1960ko hamarkadan, euskararen, ikastolen eta euskal kulturaren alde egindako lana aitortu nahi izan zaio Atxa jaunari, sari honen bidez.

“Los Mejores de Cambio” 2003ko saria, Euskaltzaindiarentzat

Cambio 16 aldizkariak, azaroan egindako bileran, urtero ematen duen “Los Mejores de Cambio” izeneko saria, Euskaltzaindiari ematea erabaki du, Kulturari dagokion arloan. Horrela erabaki du, aho batez, *Cambio 16* aldizkariaren Edizio Kontseiluak, azaroan izandako bileran, “Euskararen alde eginiko defentsagatik, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan, hizkuntza normalizazioaren alde egiten duen lanagatik”. Kontseilukideez gain, irakurleek ere hartu dute parte sariketa honetan.

Sarigaiak, Euskaltzaindiaren proposamenez

Aldiro-aldiri, erakundeek aukera ematen diote Euskaltzaindiari sarietarako hautagaiak aurkezteko. Hona hemen, 2003an, Akademiak egin dituen proposamenak:

- Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Kutzaren “Urteko Euskal Herritar Unibertsala” izeneko sarirako, Roger Etxegarai kardinala proposatu du Euskaltzaindiak.
- Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko Kutzaren “Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientziak” sarirako, Juan San Martin euskaltzaina.
- Nafarroako Gobernuaren *Vianako Printzea* Kultur sarirako, 2002an hil zen Jose Mari Jimeno Jurio, ohorezko euskaltzaina.

I.6. HERIOTZAK

Jose Mari Satrustegi euskaltzaina

Martxoaren 27an hil da Jose Mari Satrustegi Zubeldia euskaltzaina, 72 urte zituela, hil osoa gaixorik egon ondoren. Hileta-elizkizunak Arruazun, haren jaioterrian, egin dira martxoaren 28an.


1963ko maiatzaren 18an, euskaltzain oso izendatu zuen Euskaltzaindiak. Euskaltzaindiaren baitan, Nafarroako ordezkaria izan zen hogeibat urtetan, 1979tik (ordezkaritza bera sortu zen unetik) 1997 arte. Akademiako idazkaria ere, 1978tik 1992 arte. Onomastika batzordeko kidea izan zen, hil arte.

Rudolf de Rijk euskaltzain ohorezkoa

Ekainaren 15ean hil da Rudolf Pieter Gerardus de Rijk euskaltzain ohorezkoa, Amsterdamen. Amsterdamen sortua zen, 1937. urtean.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1965eko irailean eta, euskaltzain ohorezko, berriz, 1991n. 2002ko azaroan, Euskal Herriko Unibertsitateak *Honoris Causa* doktore izendatu zuen.

Bestalde, uztailaren 26an, Abadiñon, Urkiolan, *Hirukurutzeta* izeneko tokian, ageriko bilkura berezia egin du Euskaltzaindiak: Rudolf de Rijk ohorezko euskaltzainaren errautsen barreiatze-ekitaldia egin da, haren alarguna, Virginia de Rijk-Chan bertan zelarik. Xabier Kintana idazkariak eta Pello Salaburu euskaltzainak hitzaldi bana egin dute. Ondoren, alargunak Rudolf de Rijk-en errautsak barreiatu ditu eta, azkenik, esker onezko hitzak esan.



Urkiolan, *Hirukurutzetan*, 2003-VII-26an, Rudolf de Rijk-en omenezko ageriko bilkura. Xabier Kintana haren omenezko hitzak irakurtzen.



I.7. HILBERRI-TXOSTENAK

Apirilaren 25ean, egoitzan egindako bilkura irekian, omenezko hilberri-txosten hauek irakurri dira:

Jose Maria Jimeno Jurio

Euskaltzain ohorezkoa (Artaxoa, 1927-2002). Omenezko txostena, Jose Mari Satrustegi euskaltzainak prestatua, Andres Iñigok irakurri du.

Ignacio Urkixo

Euskaltzain urgazlea (Bilbo, 1907-2002). Omenezko txostena Federico Verastegui, Euskalerriko Adiskideen Elkarteko kideak egin du.

Pedro Berrondo

Euskaltzain urgazlea (Oiartzun, 1919-2002). Omenezko txostena Juan Mari Lekuona euskaltzainak egin du.



Egoitzan, Jose Mari Jimenoren omenezko hilberri-txostena irakurtzen, 2003-IV-25ean. **Ezkerretik eskuinera:** Andres Iñigo, Beñat Oihartzabal, Henrike Knörr, Jean Haritschelhar eta Xabier Kintana.

I.8. IZENDAPENAK ETA ORDEZKAPENAK

Euskal Herritar Unibertsala

“Euskal Herritar Unibertsala” sariko epaimahaian Henrike Knörrek ordezkatu du Euskaltzaindia.

Jean-Louis Davantek egin du Korrika 13 lasterketaren lehen kilometroa

Apirilaren 4an, *Korrika 13*, euskararen aldeko lasterketa herrikoa, abiatu da Mauletik. Jean-Louis Davant euskaltzainak hartu du lehen lekukoa eta, Zuberoako Gau Eskolako eta bertoko ikastolako ordezkariak bertan zituela, bete du lehenengo kilometroa.

Jorge Oteizaren aldeko hiletetan

Apirilaren 10ean, Andres Iñigo izan da, Akademiaren izenean, Jorge Oteizaren alde egin diren hiletetan (Egues-en), bai eta ehorzketan ere (Altuzan).

EGA prestatzen ari direnentzako ikastaroa

Maiatzaren 15ean, Ricardo Badiola argitalpen eragileak lau orduko ikastaroa eman du Getxoko Jose Antonio Agirre Lekube Udal Euskaltegian, EGA prestatzen ari direnei zuzendua.

Jose Mari Satrustegiren aldeko ekitaldietan

Maiatzaren 30ean, Iruñeko Nafar Ateneoak Jose Mari Satrustegiri buruzko mahai-ingurua antolatu du, eta ekitaldi horretan Andres Iñigo Nafarroako ordezkariak ere esku hartu du.

Bestalde, abenduaren 20an, Olentzerozale Elkarteak Jose Mari Satrustegi zenari omenaldi bat egin dio Iruñean. Bertan, Andres Iñigok, Jose Mari Satrustegiren bizitza eta lanak aipatu ditu.

Euskaltzainburua “Federación del Gremio de Libreros de España”n

“Federación del Gremio de Libreros de España” elkarteak, 2004ko maiatzean egingo duen V. Biltzarreko Ohorezko Batzordeko kide izatea eskatu dio Euskaltzainburuari, eta onartu egin du eskaintza.

Beste ordezkapen batzuk:

- Urtarrilaren 22an, Iruñerriko Uharteko Zubiarte Euskaltegiaren inaugurazioan, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria izan da.
- Otsailaren 25ean, Bilboko Ingeniarien Eskola Fundazioak gonbidaturik, Xabier Kintana idazkaria izan da INGENIA sariaren emate ekitaldian, Guggenheim Museoan.
- Martxoaren 17an, Guggenheim Museoan egin den “Calder grabitatea eta grazia” erakusketaren inaugurazioan Pello Telleria eragile teknikaria izan da.

- Martxoaren 21ean, *Fundación Araba* delakoak bazkari ofiziala egin du Bilboko “Sociedad Bilbaina” elkartean, urte berriari ekiteko asmoz. Aipatu fundazioa, Bilbon bizi ziren hainbat arabarrek duela ia mende bat sortutako “Casa de Álava”ren jarraipena da. Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendaria izan da.
- Martxoaren 22an, Bilboko *Bilborock* aretoan egin den *Korrika* 13ren aurkezpe-nean Andres Urrutia *Jagon* sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Martxoaren 26an, Bilboko *Carlton* Hotelean egin den Bizkaiko Ikastolen Elkartearen 25. urteurreneko ospakizunean ere Andres Urrutia *Jagon* sailburua izan da.
- Martxoaren 28an, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusean Unibertsitatearen Urrezko Domina eman diote José Ramón Recalderi. Euskaltzaindiak atxikimendua helarazi dio EHUko Errektoreari.
- Apirilaren 14an, Elizondon, Baztango Jorge Oteiza Etnografia Museoaren inaugurazio ekitaldian, Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria izan da Euskaltzaindiaren ize-nean.
- Apirilaren 8an, *Irulegi* Irratiak eskatuta, “Euskararen egoera Nafarroan” izeneko hitzaldia eman du Andres Iñigok, Bidarteko Herriko Etxean.
- Apirilaren 27an, Bilbao Bizkaia Kutzaren Bilboko Kultura Aretoan egin den *Ibilaldia 03*-ren erakusketan, Andres Urrutia *Jagon* sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Apirilaren 28an, San Prudentzioren eta Estibalizko Andre Mariaren omenezko jaiak direla eta, Arabako Diputatu Nagusiak, *Artium* Arte Garaikidearen Euskal Museoan egin duen harreran Henrike Knörr, ordezkaria izan da.
- Maiatzaren 12an, Senperen egin den *Herri Urrats 2003*ren ekitaldian Jean Haritschelhar, euskaltzainburua izan da.
- Ekainaren 1ean, Real Academia Española-n egin den Luis Angel Rojo jaunaren sarrera-ekitaldira Henrike Knörr, buruordea joan da.
- Ekainaren 8an, Oionen egin den *Araba Euskaraz 2003*ren ekitaldian Henrike Knörr buruordeak eta Xabier Kintana idazkariak ordezkatu dute Euskaltzaindia.
- Ekainaren 13an, “Larreko” sariaren ekitaldian, Atarrabiako *Paz de Ziganda* Ikastolan Patxi Zabaleta eta Andres Iñigo euskaltzainak izan dira.
- Ekainaren 14an, “Manuel de Irujo” saria Pedro Miguel Etxenikeri eman zaio, Lizarran, eta ekitaldian Andres Iñigo izan da.
- Ekainaren 14an, *Nafarroa Oinez 2003*ren inguruko ekitaldian, Mari Cruz Esarte, zaraitzueraz mintzatzen den azkeneko lekukoari, Irunberrin egin zaion omenaldian, Andres Iñigo izan da.
- Ekainaren 17an, Deustuko Unibertsitateak ospatu duen ikasturtearen amaierako ekitaldian Andres Urrutiak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Uztailaren 14an, Eusko Jaurlaritzan, Euskal Gizataldeen Mundu Batzarrari hasiera emateko ekitaldian Henrike Knörr buruordeak ordezkatu du Akademia.
- Uztailaren 15ean, Iruñeko Larraona Ikastetxean egin den Udako Euskal Unibertsitatearen 31. Ikastaldiaren sarrera-ekitaldian Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria izan da.
- Uztailaren 18an, UZEIk bere 25. urteurrena ospatu du, Donostian. Euskaltzaindiaren izenean, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, Beñat Oihartzabal, euskaltzaina eta Pello Telleria, idazkariordea izan dira.

- Uztailaren 28an, Bizkaiko jagolea den San Inazioaren eguna dela eta, Bizkaiko Diputatu Nagusiak Diputazioan eskaini duen harrera-ekitaldian, Jose Luis Lizundiak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Irailaren 12an, Operaren Lagunen Bilboko Elkartek -OLBE / ABAOk- Sociedad Bilbaina-n egin duen 2003-2004ko Opera-aldiaren aurkezpen ekitaldian Pello Telleria idazkariordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Urriaren 1ean, Real Academia Española-ren gonbitari erantzunez, Espainiako Institutuko Erret Akademien Ikasturtearen irekitze-ekitaldira, Madrilera, Pello Salaburu euskaltzaina joan da.
- Urriaren 2an, Euskal Herriko Unibertsitatearen 2003-2004 Ikasturte Hasieraren Ekitaldi Nagusian, Leioako Campusean, Henrike Knörr buruordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Urriaren 3an, Bartolomé de Carranza-ren V. mendeurrena dela eta, Miranda Argako Udalak antolatu dituen ekitaldietara Andres Iñigo joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 5ean, Lazkaon, Gipuzkoako Ikastolen Elkartek eta Lazkaoko San Benito Ikastolak antolatu duten *Kilometroak'03* ibilaldiaren inaugurazio-ekitaldian Ana Toledo, euskaltzain urgazlea Gipuzkoako ordezkar-laguntzailea izan da Akademiaren izenean.
- Urriaren 9an, Irunen, egin den FICOBA Erakustazokaren inaugurazioan Jean Haritschelhar, euskaltzainburua izan da.
- Urriaren 13tik 19ra bitartean, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailburuordetzak antolatuta, Kultura Arteko Astea-ren barruan zenbait hitzaldi eman dira hiriburu desberdinetan. Hitzaldiak Gasteizen izan direnean, Henrike Knörr, buruordea joan da eta, Bilbokoetara, berriz, Xabier Kintana idazkaria.
- Urriaren 16an, Gasteizen egin den “2002. urteko Euskal Herritar Unibertsala” sariaren emate-ekitaldira, Henrike Knörr buruordea joan da Akademiaren izenean.
- Urriaren 19an, *Nafarroa Oinez-03*ko ekitaldietan, Xabier Kintana, Andres Iñigo, Patxi Zabaleta eta Andolin Eguzkitza euskaltzain osoak eta Jorge Cortes Izal euskaltzain urgazlea izan dira.
- Urriaren 19an, Henrike Knörr buruordea Madrilan izan da, Euskaltzaindiaren izenean, José Manuel Sánchez Ron kide berriak Espainiako Akademian egin duen sarrera-hitzaldian.
- Urriaren 20an, Bizkaiko Diputazioan, *Revista musical de Bilbao*-ren faksimilearen aurkezpenean Jose Antonio Arana Martija izan da.
- Urriaren 21ean, Derion egin den *Euskaltel*-en egoitza berriaren inaugurazio ekitaldira Henrike Knörr buruordea, Xabier Kintana idazkaria eta Jose Luis Lizundia, euskaltzaina joan dira.
- Urriaren 22an, Uharteko Zubialde Euskaltegian egin diren Nafarroako euskalkieei buruzko jardunaldien hasiera-ekitaldian, Henrike Knörr buruordea izan da.
- Urriaren 30ean, Iruñean zabaldu den Baluarte Kongresu Jauregiaren inauguraziora Andres Iñigo, euskaltzaina eta Nafarroako ordezkarria joan da.
- Urriaren 25ean, Albaitaritzari buruz Bilbon egin den jardunaldia dela eta, Euskaltzaindiaren egoitzan Jose Pablo Ullibarri euskaltzaleari buruz egin den hitzaldian, Andres Urrutia *Jagon* sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Azaroaren 18an, Jaurlaritzako Lehendakariaren egoitzan gauzatu den “2003ko Euskadi Literatura Sariaren” banaketa ekitaldira Henrike Knörr buruordea joan da.
- Azaroaren 20an egin diren Sabino Aranaren mendeurrenako jardunaldietarako, Jose Luis Lizundia, euskaltzaina izendatu da Euskaltzaindiaren ordezkarri izateko.

- Azaroaren 20an, Gasteizen egin den Filologia eta Geografia-Historia Fakultatearen XXV. urteurreneko ospakizun ekitaldian Henrike Knörr buruordea izan da.
- Abenduaren 2an, Euskararen Eguna dela eta, Bilboko Udalak antolatu duen ekitaldira Pello Telleria, idazkariordea joan da.
- Abenduaren 3an, Irunen, Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak eta Alain Rousset Akitaniako presidentek -Akitaniako abiadura handiko trena eta Y trena dela eta- egin duten sinadura-ekitaldian, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua izan da.
- Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Miramon Teknologi Elkartegian egin den “Euskara Mundu guztien esku” izeneko ekitaldira Henrike Knörr buruordea joan da Akademiaren izenean. Ekitaldi hau, Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiek antolatu dute.
- Abenduaren 3an, Bilboko Kultura Aretoan, BBK Fundazioak, Temas Vizcaínos saillean, Gabriel Arestiri buruzko biografia aurkeztu du, Jon Kortazar euskaltzain urgazleak egin. Andres Urrutia izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Abenduaren 4an, Espainiako Konstituzioaren XXV. urteurrena dela eta, Gasteizko *Artium* Arte Garaikidearen Euskal Museoan egin den ospakizunean Henrike Knörr buruordea izan da, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Biltzar Nagusiek gonbidaturik.
- Abenduaren 10ean, Portugaleten, Euskal Herriko Unibertsitateak Urrezko Domina eman dio bere abesbatzari; Andolin Eguzkitza izan da Euskaltzaindiaren ordezkaria.
- Abenduaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak giza-eskubideen alde antolatu duen René Cassin sariaren emate ekitaldian izan da Henrike Knörr buruordea.
- Abenduaren 16an, Gasteizko *Arte Eder* Museoan, Iparraldeko pintura eta zeramika alorrean azken bi urteotan erosi denaren erakusketa ekitaldian izan da Henrike Knörr buruordea.
- Abenduaren 18an, BBKren egoitzan egin den *La guía gastronómica y cultural del País Vasco*-ren aurkezpenera Euskaltzainburua joan da, erakundearen izenean.
- Abenduaren 19an, Gabonak direla-eta, Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakariak, gizarteko hainbat erakunde eta pertsonari egindako harrera-ekitaldian, Xabier Kintana idazkaria eta Henrike Knörr buruordea izan dira.
- Abenduaren 23an, Gipuzkoako Urrezko Domina Jose Maria Setien, Iñaki Gabilondo eta Juan Celayari eman zaie. Ekitaldi horretan Jean Haritschelhar eta Henrike Knörr izan dira Euskaltzaindiaren izenean.

II. Akademia-jarduera

II. AKADEMIA-JARDUERA

BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzordeetako lanen bidez garatzen da hein handi batean. Oinarri-oinarrikoa da, beraz, batzordeen eginkizuna. Hileroko osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: *Iker saila* eta *Jagon saila*. Bi urterik behin berriztzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutueta irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegigileak, administrazioko teknikariak eta beste. Hori horrela izanik, Euskaltzaindiaren lana aberatsa eta ongi oinarritua gertatzen da, bai eta erabakiak hartzeko orduan ere.

Bilerak

Hona hemen, Euskaltzaindiko batzordeek 2003an egindako bileren berri:

Batzordeak	Bilerak
Hiztegi Batuko lantaldea	21
Gramatika batzordea	12
Dialektologia-Atlasa batzordea	12
Onomastika batzordea	21
Herri Literatura azpibatzaordea	10
Literatura Ikerketa azpibatzaordea	14
Euskara Batuko batzordea	(*)
<i>Jagoneko Corpus</i> batzordea	12
<i>Jagoneko Sustapen</i> batzordea	3
Argitalpen batzordea	2
Azkue Biblioteka batzordea	6
VII. <i>Jagon</i> Jardunaldia	1
GUZTIRA:	114

(*) Batzorde honek ez du bilerarik egin. Batzordeko idazkaria arduratu da lanaren kudeaketaz eta batzordekideekiko harremana posta elektronikoz bideratu du.

II.1. HIZTEGIGINTZA

Hizkuntza Akademia batentzako hizteigintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Une honetan Euskaltzaindiak bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.

II.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

Orotariko Euskal Hiztegiaren xedea, hiztegi historikoa eta deskriptiboa den aldetik, garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. Menderik mende eta euskalkiz euskalki euskaldunak nolako hizkuntzaz baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzeko helburua du hiztegi honek. Egitasmo hau aurrera eramateko, hitzarmena 1984an sinatu zen. Lehen liburukiak 1987an ikusi zuen argia eta, guztira, 16 liburuki izango dira.

XV. liburukia

Zuzenketak

Tx – Us zerrendaren testua zuzendu da.

Zuzenketa-lanok epeka egin dira (*ikus eranskina*):

- a) Adibideen zuzenketa (hiztegiaren gorputz nagusia osatzen duten testu eta adibideak).
- b) Sarrera-buruak (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.).
- c) Koordinazioa eta zuzenketa.
- d) Zuzenketa filologikoa.

XVI. liburukia

Idazketa

Ut - zur letren arteko sarrerak egin dira, XVI. liburukiari dagozkionak (*ikus eranskina*).

II. ERANSKINA

2003ko ZUZENKETA-LANAK

	Koordinazio eta zuzenketa		Testu zuzenketa	Sarrera-buruen zuzenketa	Zuzenketa fil. eta lexik. makinaratzea
Urtarrila	txo-/tz-	sud-	txi-/u-	tx-/uk-	sud-/txi-
Otsaila	u-/ur-	↓	u-/uk-	uk-/ur-	
Martxoa	ur-/urr-	↓ tuz-	ul-/urd-	uk-/ur-	
Apirila	urr-/us-	↓ txi-	ul-/urd-	ur-/us-	txi-/tz-
Maiatza	us-	↓	urd-/urru-	ur-/us-	u-/urr-
Ekaina	us-/uu-	↓ tz-	urs-/usu-	ur-/us-	sub-/tz-
Uztaila	us-/uu-	u-	urs-/usu-	us-	us-/uz-
Abuztua	ut-/uu-	u-	urs-/usu-	us-	us-uz- u-
Iraila	2. itzulia su-/tar-		urs-/usu ut-/w-	ut-	
Urria	tar-/usu-	↓ sub-	ut-/w-	ut-	2. itzulia su-/uk- su-/te-
Azaroa	ut-/w-	↓ usu-	xa-/xe-	ut-/uz-	te-/us- uk-/us-
Abendua	xa-		xa-/xe-	ut-/uz- xa-	

II.1.2. HIZTEGI BATUA

Orotariko Euskal Hiztegia deskribatzailea eta historikoa den bezala, *Hiztegi Batua* hiztegi arauemailea dugu.

Euskaltzaindiak arlokako eta zatikako zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatalgo izendegia*, etab. Hiztegi hauez gainera, Akademiak nahitaezkoztat jo zuen euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea. Horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Euskaldunak eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituen hitzak finkatzea da xedea, beti ere hizkuntzaren batasunari begira.

Hiztegi Batuaren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuena jaso dira. Bigarren batean erabilera urriagokoak jasotzen ari dira. Lehenengo itzulian 20.000 hitz inguru landu eta onartu dira. Bigarren itzuliak beste horrenbeste forma ditu aztergai. Batzordeak 1997an ekin zion bigarren itzuli honi. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitzetik gora izango du *Hiztegi Batuak*. Euskaltzaindiak lehen itzuliko formak, hitz-zerrendak, osoko batzarretan aztertu ondoren, arau gisa eman zituen argitara 2000an, atalez atal. Urte horretan, liburu bakarrean, *Euskera* agerkariaren 2000ko 2. zenbakian, hain zuzen, argitaratu ziren lehen itzuliko hitz-zerrenda horiek guztiak.

Hitzen azterketa

Hiztegi Batuko lantaldeak, 3.118 forma aztertu ditu. Horiek guztiak, zerrenda osagarriari dagozkio, hau da, EEBS (Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa) corpus osatuan 3 agerralditik gora dituzten formei: *endoteliar* – *ulermen-maila* artekoiei. Hitz horiek aztertu egin dira lantaldean, kasuan kasuko proposamenara iritsiz.

Forma horiek lantzeko eta horiei buruzko proposamenak egin ahal izateko, erabilera idatziaren eta bestelako informazioen lekuko diren 1.480 txosten izan ditu esku artean lantaldeak, UZEIko prestalaneko taldeak eginak; iturri nagusitzat *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* eta *Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS)* corpusak izan dituzte txosten horiek.

Irizpideen txostena eguneratzea

Lantaldearen irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz joan da, auzigai berriak agertu ahala, dagokien konponbidea zehaztu ahal izateko.

Irizpide horien eta kasuan kasuko informazioaren argitan aztertu diren forma edo hitz bakoitzaz lantaldeak bere iritzia eskaini du, batzuetan zabalago, soilago besteetan, onartzeko forma den esanaz, edo bigarren mailan onartzekoa den, edo okerra den, zein erabilere duen, nola ageri den syntaxian, zein den duen adiera, etab.

Arauk

Euskaltzaindiak, urtean zehar egin dituen osoko bilkuretan, Hiztegi Batuko honako hitz-zerrenda hauek onartu ditu:

- *aloe* - *analogiko*
- *analogo* - *antzoki*
- *antzu* - *arbindu*
- *arbitrario* - *arlotetu*
- *arma* - *arrimu*
- *arriskatu* - *askatu*
- *askatzaile* - *atomatu*

Hizkuntza kontsultak

Euskaltzaindiaren JAGONET zerbitzutik jaso diren galderari erantzun zaie.

UZEIrekiko lankidetzak

Aurreko urteetako harremanei eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2003an ere. Euskaltzaindiak emandako diru-laguntzaren trukean UZEIk lan hauek egin ditu Akademiarentzat:

- Hiztegi Batuari dagokionez, M, N, Ñ, O, P, R, S, T, U, V, W, X, Y eta Z letraz hasitako hitzen zerrendak eta horien txostenak prestatu eta iritzi-emaileen oharrak jaso eta sistematizatu.
- Hiztegi Batuko lantaldearen ardura eta idazkaritza eraman.
- Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoari (EEBSri) dagokionez, interneten dagoen XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa etengabe eguneratu.

II.2. GRAMATIKA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 1999ra bitartean zortzi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin.

Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) lehenbizikoa darama oraingoz eskuartean.

Menderakuntzari buruzko gaiak

Aurreko urteetan bezala, 2003an ere menderakuntzari buruzko gaiak lantzea izan du eginkizun nagusia batzordeak. 1999. urtean *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko Perpausak-1)* liburukia argitaratu ondoren, geroztik batzordea gramatiken saileko hurrengo liburukia prestatzen ari da, *EGLU VI* izango dena.

2003. urtean honako txosten hauek izan ditu batzordeak eztabaidagai menderakuntzazko bigarren liburukiari dagokionez:

- “Kausazko perpausak”: hiru irakurraldi egin ondoren, bukatutzat eman da.
- “Baldintza-perpausak”: bukatutzat eman da.
- “Non (*eta*) ez ...-en”: hiru irakurraldi egin ondoren, bukatutzat eman da.
- “Denborazko perpausak”: bukatutzat eman da.
- “*eta* enklitikoa”: bukatutzat eman da.
- “Moduzko perpausak”: hiru irakurraldi egin zaizkio txostenari.
- “-*ela* / -*elarik* moduzkoak”: irakurraldi bat egin ondoren, finkatutzat eman da.
- “Helburuzko perpausak”: azken oharrak aztertu eta gero, bukatutzat eman da.

Hizkuntza kontsultak

Galdera gehienak, Euskaltzaindia 2001ean eskaintzen hasi zen *Jagonet* Zerbitzuaren bidez jaso dira. Horietako batzuk Gramatika batzordean aztertu dira eta beste batzuk, berriz, horretarako izendatuak izan diren batzordekideek aztertu eta erabaki dituzte, gaiaren arabera. Hona hemen, erantzun diren galdera nagusiak:

- *Amatara emon dau* esapideaz.
- Atzizkiak: -oro.
- *Bazindze* Bermeoko aditz forma.
- Behar aditza eta ergatiboa: *Moduren bat egon behar du hau konpontzeko. Mendia oso polita egon behar du elurtuta.*
- *Beraz* lokailuaren sailkapenaz.
- *Beren buruaz* / *buruez* beste egin.
- *Dateke* eta *dukezu* moduko adizkien erabileraz.
- *Datorren astelehen zortzi* / *datorren astelehenean zortzi*.
- Deklinabidea: mugagabearen eta pluralaren arteko banaketa.
- *Denbora* hitza pluralean? *Denbora* haiek?
- *Euskal Herri osoa* / *Euskal HerriA osoa*; *Azpeiti eta Azkoitira* / *AzpeitiA eta Azkoitira*...
- Euskara atuko deklinabide paradigmez.

- Halako + adjek. edo aditzondoa.
- Honen eta horren, ondoriozko perpausetan.
- Izenordainen forma indartuak: *neronek, neroni...*
- *Nik dakidanik, hori ez da horrela / nik dakidala, ...*
- *Nor gehiagok / Nork gehiagok.*
- *Norbere eta norberaren artean desberdintasunik?*
- *Nor-nori-nork* erako aditzen osagai baten izenaz / izanaz.
- *-rako-ren* erabilera.
- *-taz / -zaz* (*horrez gain, horrezaz gain, horretaz gain*).
- *-tzat jo / -ø jo.*
- *-tzearren / -tzeagatik* menderagailuen balizko desberdintasunez.
- *-tzerakoan / -tzerako.*
- *Zeru(a) estali(ta) dago.*

II.3. DIALEKTOLOGIA

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 ordutik gora dira.

Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

Atlasgintza

Atlaseko lantaldeak 2003an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- inkesten datuak base automatizatuan sartzen jarraitzea
- datuak lantzea, datu-basea prestatuz eta mapak editatuz.

Laugarren koadernoko inkesten datuak sartzen jarraitu

2003. urtean 12 inkesta informatizatu dira EHHA egitasmoan:

- Nafarroa (3): *Dorrao, Igoa, Oderitz*.
- Nafarroa Beherea (6): *Arboti, Baigorri, Bastida, Ezterenzubi, Jutsi, Lartzabal*.
- Lapurdi (2): *Bardoze, Urketa*.
- Zuberoa (1): *Altzürükü*.

Atal honetako lexikoak duen konplexutasuna dela eta (teknologia tradizionalako garraioak, lurra lantzeko lanabesak, sagardo/ardogintza...) zintak entzutera jo behar izan da sarritan.

1. irud.: laugarren ataleko 4-a datu-sarreraren egoera lurraldeka

4-a ATALA	Aurretik eginak	2003an eginak	Oraindik egiteko	Guztira
BIZKAIA	36	0	0	36
ARABA	1	0	0	1
GIPUZKOA	36	0	0	36
NAFARROA	24	3	3	27
LAPURDI	13	2	0	15
NAF. BEHEREA	12	6	0	18
ZUBEROA	3	1	8	12

Datuen lantzea

Arlo honetan urrats hauek egiten dira: lehenik mapak egin, berrikusi eta zuzendu; datuak elaboratu eta mapen eta datu-basearen azterketa egin.

Lehen liburukia

Nafarroako Gobernuak eskatutako aldaketak egin ostean, lehen liburukiaren inprimategiko bigarren eta hirugarren zuzenketak egin dira.

Laugarren liburukia


Liburuki honek izango dituen 260 galderatik 51 mapa egin dira 2003. urtean, eta egindakoak zuzentzen aritu dira batzordekideak.

Informatika bateratzea burutu

Bereziki Nafarroako Gobernuak aurkeztutako premiei erantzun ahal izateko, Euskaltzaindiak programa informatikoaren eguneratzeari ekin dio 2003an.

2. irudia: lehen lau liburukien egoera

Datuen elaboraketa 2003-XII-31n



EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA
DATU-SARRERA: 4a. ATALA

2003ean informatizatutako herriak

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
101 Getxo						
102 Leioa						
103 Zollo						
104 Sondika						
105 Laukiz						
106 Lemoiz						
107 Uribe-Etxebarri						
108 Zaratamo						
109 Orozko						
110 Mungia						
111 Zeberio						
112 Bakio						
113 Fika						
114 Larrabetzu						
115 Arrieta						
116 Lemoa						
117 Dima						
118 Zeanuri						
119 Errigoiti						
120 Bermeo						
121 Busturia						
122 Euba						
123 Mañaria						
124 Otxandio						
125 Ibarri						
126 Mendata						
127 Kortezubi						
128 Elantxobe						
129 Berriz						
130 Arrazola (Atxondo)						
131 Elorrio						
132 Bolibar						
133 Gizaburuaga						
134 Lekeitio						
135 Markina-Etxebarri						
136 Ondarroa						
201 Aramaio						
301 Leintz-Gatzaga						
302 Arrasate						
303 Eibar						
304 Araotz (Oñati)						
305 Oñati						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
306 Bergara						
307 Elgoibar						
308 Mendaro						
309 Deba						
310 Azkoitia						
311 Urretxu						
312 Legazpi						
313 Zegama						
314 Ezkio-Itsaso						
315 Zestoa (Arroa)						
316 Azpeitia						
317 Getaria						
318 Beizama						
319 Beasain						
320 Ataun						
321 Errezil						
322 Aia						
323 Orio						
324 Asteasu						
325 Ikaztegieta						
326 Amezketa						
327 Tolosa						
328 Donostia (Ibaeta)						
329 Lasarte						
330 Andoain						
331 Elduain						
332 Oresa						
333 Hernani						
334 Pasaia						
335 Oiartzun						
336 Hondarribia						
401 Urdiain						
402 Arbizu						
403 Dorrao						
404 Gaintza						
405 Leitza						
406 Etxarri						
407 Oderitz						
408 Goizueta						
409 Ezkurra						
410 Beruete						
411 Igoa						
412 Etxaleku						
413 Suarbe						
414 Sunbilla						
415 Donamaria						
416 Etxalar						
417 Alkotz						
418 Aniz						
419 Lekaroz						
420 Zugarramurdi						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
421 Eugi						
422 Erratzu						
423 Zilbeti						
424 Mezkiritz						
425 Luzaide						
426 Abaurregaina						
427 Eiaurrieta						
501 Hendaia						
502 Donibane-Lohizune						
503 Azkaine						
504 Sara						
505 Senpere						
506 Ahetze						
507 Arrangoitze						
508 Uztaritze						
509 Mugerre						
510 Itxasu						
511 Urketa						
512 Beskoitze						
513 Hazparne						
514 Makea						
515 Bardoze						
601 Aldude						
602 Bidarra						
603 Baigorri						
604 Arnegi						
605 Uharte-Garazi						
606 Irisarri						
607 Isturitze						
608 Arruta-Sarrikota						
609 Armendaritze						
610 Esterenzubi						
611 Gamarte						
612 Landibarre						
613 Behorlegi						
614 Arboti						
615 Garruze						
616 Jutsi						
617 Larzabale						
618 Bastida						
701 Phagola						
702 Domintxine						
703 Urdiñarbe						
704 Altzürükü						
705 Larrañe						
706 Altzai						
707 Sohüta						
708 Muntori						
709 Santa-Grazi						
710 Ürrüxtoi						
711 Barkoxe						
712 Eskiula						

II.4. ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1972an sortu zen, lehendabizi “Herri eta Herritarren Izenen batzordea” izenarekin. 1981ean, Loiolako II. Barne Jardunaldietan batzorde guztien organigrama finkatu zenean, oraingo izena eman zitzaion batzordeari.

Batzorde honek ponte-izenak, deiturak, leku-izenak eta exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko ikerketa finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu.

Euskal Deituren Izendegia osatzen

Euskal Deituren Izendegia 1998an argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren beste 56 deitura finkatu dira batzordean 2003an zehar.



Irunberriko Udaletxean, 2003-IX-19an, Onomastika batzordearen bilera. Ezkerretik eskuinera: Txomin Peillen, Roberto Pérez de Viñaspre, Patxi Galé, Felix Mugurutza, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Mikel Gorrotxategi.

Ponte izendegia osatzen

Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms liburua 2001ean argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren 49 pertsona-izen finkatu dira batzordean 2003. urtean.

Toponimia-lanak gainbegiratu

Herri hauetako toponimia-lanak aztertu dira: *Dima* eta *Laudio*.

Herri hauetako toponimia-lanak aztertzea onartu da, gainbegiratzeko arduradunak izendatuz: *Antzuola*, *Eibar*, *Erandio*, *Tolosa* eta *Ikermap* Enpresak prestatu duen *Aretxabaleta udalerriko mapa*.

Iparraldeko Toponimiaren ikerketan, etxeen izenak jartzeko orduan gertatzen diren arazoak aztertu dira, hots, Iparraldean berariaz sortutako lantaldean; zeregin horretan Onomastika batzordeko idazkariak parte hartu du.

Herri-izendegiak eta eskualdeak

1. Nafarroa Behereko herri-izendegia. Guztira 70 izen onartu ditu batzordeak: bate-tik, *Amikuze* eskualdeko 58 herri eta herritarrenak eta, bestetik, *Agaramont* eskualdeko 12 izen.
2. Trebiñuko herri-izendegia. Izendegi hori kaleratuko duen argitalpena prestatzen hasi da, S letrarainoko izenak finkatuz.

Erakunde eta elkarte batzuen kontsultak

Lan hau, batez ere 2003an EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkartearekin) Euskaltzaindiak egin duen hitzarmenari esker gauzatu ahal izan da:

1. Udal eta kontzeju hauei buruzko irizpenak eman dira (18): *Ali: Ehari; Albeniz: Albeiz / Albeniz; Añúa: Añua; Barriobusto: Gorrebustu; Berganzo: Bergantzu; Gamarra Menor: Gamarragutxia; Garay: Garai; Gopegui: Gopegi; Guevara: Gebara; Marquina: Markina; Miñano Mayor: Miñao; Murguia: Murgia (-a); Murua: Murua (-a); Nabaja: Nabaxa; Oquina: Okina; Unzá-Apreguindana: Untzaga / Unza-Apregindana; Sojo: Soxo; Zuaza: Zuhatza.*
2. Herri-, auzo-, kale-, industrialde-, baserri-, baseliza- eta etxalde-izenez herri hauetako udalei erantzun zaie idatziz edo bertara joanez: *Abadiño, Adana, Adios, Aspuru, Atxondo, Balmaseda, Basauri, Bikuña, Durruma Donemiliaga, Egilatz, Elorrio, Erdoña, Galarreta, Getxo, Iruñea, Lantziego, Luzuriaga, Mezkia, Munain, Nabaxa, Oiartzun, Oion, Okariz, Okondo, Soraluze, Trebiñu, Txintxetru, Uribarri-Jauregi, Urduña, Viñaspre* eta *Zuhatzu Donemiliaga*. Guztira, 927 izen.
3. Beste erakunde hauei erantzun zaie: *Altsasuko Udala, Berrizko Udala, Iruñeko Epaitegia, Guardiako Udala, Ehariko Administrazio Batzarra, Euskal Telebista, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarea Zuzendaritza, Etxebarriko Udala, Hondarribiko Udala eta Nafarroako Gobernu.*

Banakako kontsultak

Lehenago aipatu diren pertsona-izenak eta deiturak, herritarrek egindako beste horrenbeste erantzun izan dira.

Internet bidez heldu diren 300dik gora galderari erantzun zaio.

Araugaiak prestatu

1. Exonomastika azpibatzaordeak iaz prestatu zuen "Aita santuen izenak" txostena, aurten arau bihurtu da, Euskaltzaindiak osoko batzarrean ontzat eman ondoren.

2. Orain dela zenbait urte santuen izenak arautu ondoren, aurten batzordeak “*San, santu, done* eta besteren erabilera” izeneko txostena landu du eta Euskaltzaindiari aurkeztu; 2003. urtean onartu da.

Batzordea biltzarretan

Uztailaren 3, 4 eta 5ean, Bellver de Cerdanya herrian, Kataluniako toponimiari buruz egin diren I. Jardunaldietan parte hartu du Euskaltzaindiak. Onomastika batzordekide hauek izan dira: Mikel Gorrotxategi eta Jose Luis Lizundia. Xehetasun gehiago I. 3. atalean ematen dira.

Azaroaren 20an eta 21ean, “Sociedad de Estudios Históricos de Navarra” elkarteak Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen lankidetzarekin, Onomastikari buruzko jardunaldiak egin dira Iruñean; batzordekide hauek parte hartu zuten, hitzaldi banarekin: Henrike Knörr, Andres Iñigo eta Patxi Salaberrik.

Gasteizko Toponimia lantaldea

Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker lau ikerlariz osatutako lantaldeak dihardu, Gasteizko ordezkarietan, bertako Udalbarrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen, ondoren argitara emateko.

Hori dela eta, lehen liburukia izango dena prestatzen ari da lantaldea, jasotako 400.000 toponimoetatik *Malizaeza* deritzon azpieskualdekoak normalizatuz.

Aurten Gasteiz hiriburuko toponimiari ere ekin dio lantaldeak. Hasiera batean izen zerrenda osatu da, gero erabaki ahal izateko zein toponimia den hirigunekoa eta zein herrietakoa. Horretarako, hiriko mugak markatu dira, inguratzen dituzten 54 mugarriak aztertu eta finkatu ondoren. Denetara, 1.240 sarrera dituen zerrenda bat sortu da. Lan honetarako, hainbat mapa egin dira ere aipatutako toponimoak kokatzeko, honako kronologia-sekuentziak erabiliz: 1825-1848, 1854-1875, 1887-1892, 1911-1925 eta 1929-1936.

Azken urte hauetan sortu den ondare kartografikoaren katalogatze lanari ere ekin zaio. Guztira, 492 plano eta mapa dira, data duen zaharrena 1700ekoa eta azkena 2003koa direlarik.

II.5. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura batzordea bi arlo nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira, batez ere bertsolaritzatik kanpo dauden beste generoak. Bestetik, euskal literaturaren hiztegia lantzen dihardu: hitz zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango ditu hiztegi horrek, maila eta luzera desberdineko txostenak eskainiz. Helburua sei ehun inguru txostenez osatutako hiztegia eskaintzea da.

Herri Literaturakoek parte hartzen dute, baita ere, hango eta hemengo antolabideetan, herri erakundeek Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen badute, hala nola sariketetako epai-mahaietan, sari banaketetan eta hitzaldiak ematen. Bestalde, Literatura Ikerketa azpibatzerdeak parte hartzen du autore ospetsuen omenaldietan, omendutako pertsonen buruzko ikerketa txostenak eginez.

II.5.1. HERRI LITERATURA

Jardunaldietako hitzaldiak argitaratu

Herri Literaturari buruzko VII. Jardunaldiak egin zituen batzorde honek 2002ko azaroaren 28an eta 29an, Eibarren, *etno-kantu laburrak* gai hartuta. Jardunaldi horietan irakurri ziren hitzaldiak eta txostenak argitaratzea izan da 2003ko lanik garrantzizkoenetakoa.

Hauek dira, *Euskera*, 2002, 2. zenbakian, argitaratu direnak:

- *Sarrera berbak: Eibar eta inguruaren euskaltasuna*, Juan San Martin, 407. or.
- *Ongietorria*: Jean Haritschelhar, 409. or.
- *Zuberotar irri kontakizunak: pertsonaiak, jarrerak, egoerak*: Txomin Peillen, 439...orr.
- *Las tres hojas. Una muestra de canción paralelística en la lírica popular de la tradición moderna*: Pedro Manuel Piñero Rodríguez, 463 ...orr.
- *Mittoa herri-kantu eta ipuinetan*, Jose Mari Satrustegi, 481 ...orr.
- *Herriaren memoria, lanbidez lanbide berritzen Euskaldunak poeman*: Joxe Mari Aranalde, 489 ...orr.
- *Umeen mintzairaz eta kantuez (1)*, Manuel Lekuonaren urratsak apain-olerkiaren teoria mamitzerakoan: Juan Mari Lekuona, 503 ...orr.
- *1977: umeen kantuak (2)*: Juan Mari Lekuona, 511 ...orr.
- *Danzas cantadas. El espacio de la canción en la danza*: Juan Antonio Urbeltz, 519 ...orr.
- *VII. Herri Literatura Jardunaldiak. Etno-kantu laburrak*: Herri Literatura azpibatzerdearen adierazpena: 533 ...orr.

Hauek, berriz, *Euskera*, 2003, 1. zenbakian argitaratu dira:

- *Marijesiak*: Jose Antonio Arana Martija, 69 ...orr.
- *Erronda-kantuak eta eske-bertsoak*: Jabier Kaltzakorta, 109 ...orr.

Hurrengo Jardunaldien prestaketan ere aritu da azpibatzerdea 2003an, herri-prosaren inguruan izango diren Jardunaldiak.

Herri literaturaren arloko ekintzetan parte hartu

Argitalpen lan hauek egin dituzte batzordekide zenbaitek:

- Pello Esnal: "Gai emalea (b)aztergarri denean", iritzi-artikulua, *Diario Vasco* egunkarian, 2003ko otsailaren 6koan.
- Jabier Kaltzakorta: "Bertso jarrietatik ahozkoa (Urkabe-bertsoak euskaraz: estudiante gazterenak eta beste)", in *Ahokotasuna aztergai. VII. Jardunaldiak*, Bilbo, Mendebalde Kultura Alkartea.
- Joxe Mari Iriondo: *Segi, Mugartegi* liburua (Auspoa Liburutegia, 282. zenb.).
- Literatura Ikerketa azpibatzaordea prestatzen ari den Literatura Hiztegirako, "Errima bertsolaritzan" izeneko txostena prestatu du Herri Literatura azpibatzaordeak.

Epaimahaietan:

- Jose Mari Aranalde epaimahaikide izan da, Zarautzen urtero antolatzen den *Basarri* bertso-paper lehiaketan.
- Pello Esnal antolatzaile eta epaimahaikide izan da, Zarautzen urtero antolatzen den bertsolari gazteentzako txapelketan.

II.5.2 LITERATURA IKERKETA

Idatzi eta eztabaidatutako txostenak

Batzordeak, honako artikulua hauek prestatu eta eztabaidatu ditu:

a) Egin diren artikulua luzeak, batez beste 7-8 orrialdekoak:

- Narratiba
- Testu

b) Artikulu ertainak, batez beste 2-3 orrialdekoak:

- Esparru literario
- Fikzio
- Gainegitura
- Joskera narratibo
- Kontalari
- Kritika tematiko
- Makroegitura
- Memoria
- Semantika

c) Egin diren artikulua laburrak, gehien bat orrialde batekoak:

- Adierazpen (Elocutio)
- Anekdotak
- Asmamen (Inventio)
- Didaktika
- Dispositio
- Feno-testua (ikus Geno-testu eta Semanalisi)
- Homologia
- Kontraesan
- Kontrapuntu
- Kontraste
- Kronotopo
- Mezu
- Plagiat
- Sekuentzia
- Semanalisi (ikus Feno-testu eta Geno-testu)

Hitz-sarrerak bildu eta zuzendu

Eginda zeuden txostenetatik, 217 bildu erabat informatizatu eta zuzendu dira, lehen azteraldia emanez.

II.5.3. SARIKETAK


Eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten literatura-sarien 2003ko irabazleak honako hauek izan dira:

- Txomin Agirre eleberri saria: *Manikien galeria*. Mikel Zubeldia Etxeberria.
- Toribio Altzaga antzerki saria: *Ama, hor al zaude?* Pablo Barrio Ramírez.
- Felipe Arrese Beitia olerki saria: *Oihan nabarra*. Luis Miguel Garde Iriarte.
- Mikel Zarate saiakera saria: *Harrizko pareta erdiurratuak*. Patziku Perurena.

Epaimahaikoak, jaun-andre hauek izan dira:

- Txomin Agirre sarian: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.
- Toribio Altzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.



Egoitzan, 2003-XII-12an, 2003ko literatura-sarien emankizun-ekitaldia. **Ezkerretik eskuinera, irabazleak:** Pablo Barrio, Mikel Zubeldia, Luis Miguel Garde eta Patziku Perurena.

R. M. Azkue sariak

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Hona hemen 2003ko R. M. Azkue saria irabazi dutenen berri:

Sari-mota, adina	Lan sarituak	Irabazleak	Ikastetxea eta herria
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Tikot Orzatzatarren historia</i> 2) <i>Bizitza bat bidean aurrera</i> 3) <i>Laguntza eske</i>	Enma Arestegi Maite Agirre Alaitz San Vicente	Xalbador (Kanbo) Loinazpe (Beasain) Tokieder (Gasteiz)
A: olerkia 10 - 13 urte	1) <i>Denbora</i> 2) <i>Ahizpa ttipia</i> 3) <i>Zure besoetako babesa</i>	Hodei Balanzategi Enma Arestegi Maialen Linazasoro	Arizmendi (Arrasate) Xalbador (Kanbo) Arizmendi (Arrasate)
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Amildegi amaieran</i> 2) <i>Whiskyarekin dantzan</i> 3) <i>Bizitzaz haratagoko gutuna</i> Accesit: - <i>Mesprezuaren samina</i> - <i>Elezahar apokrifo bat</i> - <i>Saint Georgeko ikasleen misterioa</i>	Ane Arbillaga Ihintza Erremundeguy Arantzazu Ugarte Bidatz Badiola Antton Alberdi Jabi Rodriguez	Lizeoa (Pasai Donibane) Lizeoa (Baiona) Elkar Hezi (Oñati) Txindoki (Ataun) Institutua (Elgoibar) Loinazpe (Beasain)
B: olerkia 14 - 17 urte	1) <i>Teilatuan kontatzen nizkizun ipuinak</i> 2) <i>Egunen baten</i> 3) <i>Ametsen bidaide</i> Accesit: - <i>Aldaketaren zain</i> - <i>Inguma</i>	Amets Zuazo Ekiñe Aristizabal Olatz Mitxelena Lorena Orozko Jon Samaniego	Pio Baroja (Irun) Usandizaga (Oiartzun) Hautzarro (Oiartzun) Axular (Donostia) Lizeoa (Pasai Lezo)



Euskaltzaindiaren egoitzan: 2004-III-12an, 2003ko R.M. Azkue sarien emankizun-ekitaldia: sari-tuak, sari-emaiak eta epaimahaikoak.

Honako jaun-andre hauek izan dira epaimahaikide sariketa honetan:

- A mailan, Igone Etxebarria, Amagoia López de Larruzea eta Manu Lopez Gaseni.
- B mailan, Joseba Butron, Kirmen Uribe eta Jabier Kaltzakorta.

Bestelako sarien epaimahaietan parte hartzea

- Urtero, Madrilgo Hezkuntza eta Kultura Ministerioak ematen dituen “Literatura Sari Nazionalerako”, Euskaltzaindiaren izenean 2003ko deialdian parte hartzeko izendatu diren epaimahaikideak honako hauek dira:
 - Poesia arlorako, Patri Urkizu Sarasua.
 - Narraziorako, Jon Kortazar Uriarte.
 - Saiakerarako, Lourdes Otaegi Imaz.
 - Antzerkirako, Francisco Telleria de la Fuente.
 - Haur eta gazte literaturarako, Maria Jose Olaziregi Alustiza.
 - Itzulpen sarirako, Gotzon Lobera.
 - “Premio Nacional de las Letras Españolas” delakorako Xabier Kintana Urutiaga.
- Iruñeko Udalak urtero antolatzen dituen Literatura Leihaketatako epaimahaietan, ordezkari hauek izan dira Euskaltzaindiaren izenean: Euskarazko Haur Literaturan Paskual Rekalde eta, Egile Berriendako Literatura Lehiaketan, Andolin Eguzkitza.
- Bertso jarrien sariketa hauetako epaimahaietan kide hauek hartu dute parte:
 - Jose Mari Aranaldek, Zarauzko *Basarri* bertso jarrien sarian.
 - Pello Esnal epaimahaiko eta arduradun izan da Zarautzen, bertsolari gazteentzat antolatutako *Lizardi* sarian,
- Uitziko Kontzejuan, Nikolas Ormaetxea “Orixe” III. Literatura Lehiaketan, Joxe Mari Aranalde eta Ana Toledo izan dira epaimahaikide, Euskaltzaindiaren izenean.

II.6. EUSKARA BATUA

Euskaltzaindiak aspaldi dihardu batasungintzan. Eta batasungintza esatea eta araugintza esatea bat dira. Akademiaren lehentasunetariko bat da hiztegegintza, eta eginkizun horretan oinarritzen da Euskara Batuko batzordearen izaera, Hiztegi Batuko lantaldeetik hitz-zerrendak jasoaz eta Euskaltzaindiaren osoko bilkuran aurkeztuz, eta zerrenda horiei egiten zaizkien oharren eztabaida ere bideratuz.

Aurkezturiko zerrendak

Euskara Batuko batzordeak, Hiztegi Batuko lantaldeetik jaso dituen zerrenda hauek gainbegiratu ditu, eta Euskaltzaindiaren hileroko osoko bilkuretan aurkeztu:

atomika – aurpegi
aurpegiera – azalkeria
azalki – azuzena

b - berriz hitz-zerrenda gainbegiratu du batzordeak eta prestatu, baina ez du osoko bilkuran banatu 2003. urtean.

Azterturiko oharrak

Proposamenak osoko bilkuretan aurkeztu ondoren, oharrak egiteko epea izan dute euskaltzainek hileroko. Euskara Batuko batzordeak, honako hitz-zerrenda hauei egin zaizkien 258 ohar aztertu ditu, eta erabaki-proposamenak osoko bilkuretan aurkeztu, ondoren:

arbiska – arlotetu
arma – arrimu
arrimugarri – askatu
askatzaile – atomatu
atomika – aurpegi
aurpegiera – azalkeria

azalki – azuzena hitz-zerrendako oharrak, batzordeak aztertu baditu ere, erabaki-proposamenak ez dira aurkeztu urte honetan osoko bilkuretan.

II.7. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du *Jagon Saila*, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua:

- *Corpus* batzordea euskararen corpora jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- *Sustapen* batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da.

II.7.1. CORPUS BATZORDEA


JAGONET: kontsulta- eta aholku-zerbitzua

2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean –Euskaltzaindiaren webgunean– JAGONET zerbitzua (www.euskaltzaindia.net). Emandako erantzunen datu-basea ikusteko eta galderak egiteko aukera eskaintzen da

1. Galdeleku informatikoa, posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua da galdegilearekiko). Urtean zehar 919 galdera jaso dira, eta horietako 910 galderari erantzun zaie.
2. Galde-erantzunen datu-basea, emandako erantzunak bilduz osatzen doana. Datu-basea 382 galdera-erantzunez osatua da.
3. Interneteko kontsultak. Urtean zehar, batetik, 41.753 bilaketa egin dira datu-basean eta, bestetik, 28.121 aldiz bistaratu da JAGONETen orri nagusia.

Txekeen idazkera

Euskaltzaindiko *Jagon Saileko Corpus* batzordeak, txekeak euskaraz betetzeko orduan zegoen nahaspila ikusirik, euroari egokitutako “Txekeak betetzeko idazkera-eredu batua” prestatzea erabaki zuen, herritarren esku jarri behar denerako. Horretarako, kutxa



Txekeak betetzeko idazkera eredu batua

eta bankuetako ereduak bildu eta aztertu ditu, eta eredu berria landu, hizkuntza-arauak eta legezketasunari dagozkionak betez.

Irizpen hori PDF formatuan sortu da eta banketxeetara bidali eta, nahi duenak interneten ere aurki dezake, Euskaltzaindiaren web orrian (www.euskaltzaindia.net), JAGONETeko datu-basean, "Txeke" hitza bilatu eta sakatuz.

Euskalkien erabileraz

Euskalkien lantaldeak, iazko lanari jarraituz, "Euskalkien erabilera irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan" izeneko txostena ondu du, eta esparru esberdineta-ko adituekin jardunaldia egin. Jardunaldi horretan jasotako ekarpenekin gauzatu da, Euskalkien lantaldearen eta Corpus batzordearen artean, behin betiko proposamena, eta Euskaltzaindiko osoko bilkurari aurkeztu.



Euskaltzaindiaren egoitzan: 2003-XI-21ean, barne-jardunaldia.

Ortotipografia-ri buruzko irizpena

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskariz eta Euskaltzaindiko Zuzendaritzaren aginduz, irizpena prestatu du gai horretaz Corpus batzordeak. Batzordeak onespena eman dio, oro har, Hezkuntza Sailak bidalitako *Ortotipografia* izeneko txostenari. Txosten horretan, idazteko orduan erabiltzea gomendatzen diren irizpideak azaltzen dira: nola idatzi izenburuak, laburdurak, noiz erabili letra lodia eta etzana, nola egin aipamenak, eta abar.

II.7.2. SUSTAPEN BATZORDEA

Adierazpenak

Batzordeak, Euskaltzaindiak hizkuntzaren estatusaz egindako adierazpenak transkribatu egin ditu, ondoren hiritarren eskueran jartzeko asmoz.

VII. Jagon Jardunaldiak

“Eliza eta euskara” gaiaren inguruan, Sustapen batzordea egiten hasitako jardunaldiekin jarraituz, Irunberriko Udaletxean egin dira, 2004ko irailaren 19an, VII. Jagon Jardunaldiak, gai honetaz: “Euskara Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan”.



Irunberriko Udaletxean, 2003-IX-19an, VII. **Jagon** Jardunaldiak. **Ezkerretik eskuinera:** José Enrique Garcés Allo, Andres Urrutia eta Xabi Lasa.

Nafarroa Oinez 2003 ospakizuna zela eta, antolatzaileek Euskaltzaindiari hala eskatuta, Irunberri izan dira jardunaldi hauek. Mahaiburuan, José Enrique Garcés Allo, *Arangoiti* Ikastolako lehendakaria izan da eta berarekin batera hizlariak. Garatutako programa honako hau izan da:

- Andres Urrutia, Sustapen batzordeburua: “Jardunaldien aurkezpena”.
- Xabi Lasa, Nafarroako Elizbarrutietako Euskal Pastoralta Sailaren idazkaria: “Euskararen erabilera Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan”.

- Pello Apezetxea, Etxalarko erretorea: "Elizaren jarrera euskararen aurrean".
- Elkarrizketa.
- Azken hitzak, José Enrique Garcés Allo ikastolako presidenteak esan ditu.

VII. *Jagon* Jardunaldi hauetan 43 lagun izan dira.

SNCFren errotulazioa¹³

Iparraldeko trenbideetako errotulazioa dela eta, gertakizun gogorrak izan dira gai honi buruzko epaiketa batean. SNCF zerbitzu publikoan euskararen erabilera bultzatzearen aldeko eskabidea egitea erabaki du batzordeak, Baionako Alkatearen eta Baionako Suprefetararen bidez.

Frantziako Itzulia

Batzordeak Euskaltzainburuarengan utzi du, gai hau bideratzeko egin beharreko gestioak egitea. *Ikus* I.3.atalean ematen diren argibideak.

¹³ SNCF : Société Nationale des Chemins de Fer français.

III. Erakunde zerbitzuak

III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

Aurreko atalean ikusi den bezala, Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

III.1. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak bere egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Argitalpen eta Banaketa Zerbitzua, Batzordeen Koordinazioa, Prentsa eta Komunikazioa, Informatika, Azkue Biblioteka eta Kontularitza. Egoitzan kokatzen da Akademiaren Zuzendaritza ere.



*Egoitzaren aurrean, 2003-I-17an, Euskaltzaindikoko langileak. **Behean, ezkerretik eskuinera:** Kristina Arana, Amaia Okariz, Pili Artza, Emilio Porras, Itziar Rekalde, Pello Telleria, Begoña Amundarain, Prudentzio Gartzia, Gema Insausti, Iñaki Kareaga eta Ricardo Badiola. **Goian, ezkerretik eskuinera:** Maixa Goikoetxea, Juan Jose Zearreta, Lutxi Alberdi, Jon Artza, Resu Orbe, Annie Etxeberri, Jose Luis Lizundia, Nere Altuna eta Josune Olabarria.*

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoz, Bilboko egoitzaz gainera, Euskal Herriko beste lau hiriburutan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko

konsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, bai egoitza eta baita ordezkarietatik bideratzen dira.

Ordezkapenak

Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, Erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkarien bidez. Agerpen hauek *Oroitidazki* honen I. atalean azaltzen dira.

Jendaurreko zerbitzuak

Bost bulegoetara etortzen diren hiritarren eskabideak (ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere euskararekiko beste gai ugari aztertuz) etengabe erantzuten dira. Aurten, egoitzan bakarrik, 131 ziurtagiri egin dira izen-deiturenak eta 84 deiturenak. Horrezaz gain, egunero-egunero telefonoz edota posta elektronikoz jasotzen -eta erantzuten- dira kontsulta anitz.

Bestalde, interneten bidez, www.euskaltzaindia.net helbidean, 144.059 bisita izan dira Euskaltzaindiaren webgunean.

Erakundearen bilerak

Arrunki, Bilbon egin ohi dira hileroko osoen bilkurak eta Zuzendaritzakoak, nahiz eta Donostiako ordezkarietan ere tartekatzen diren. Aurten, berriz, sei osoko bilkura egin ditu Euskaltzaindiak Bilbon eta beste bi Donostian. Gainerakoak, beste herri hauetan izan dira: Hernanin, Miranda Argan eta Atharratzen.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregian, 2003-VII-18an: Euskaltzaindiaren hileroko osoko batzarra.

Donostiako ordezkarietan ere bildu dira batzorde eta lantalde hauek: Gramatika, Herri Literatura, Literatura Ikerketa, Euskara Batua, *Jagon* saileko Corpus eta Sustapen batzor-

deak eta Euskalkien lantaldea. Argitalpen eta Azkue Biblioteka batzordeak eta Ekonomia, Literatura Ikerketa eta Exonomastika azpibatzerdeak Bilbon bildu dira. Onomastika batzordea Iruñean, Gasteizen, Bilbon, Donostian, Hondarribian eta Irunberrin bildu da. Jagon sailko Sustapen batzordea Bilbon, Donostian eta Iruñean bildu da. Dialektologia-Atlasgintza batzordea, ordea, Baionan eta Bilbon bildu da.

Denetara, 142 bilera egin dira 2003. urtean zehar.

Zuzendaritza

Gutxienez hilean bitan biltzen da. Kudeatzaileak antolatzen du kudeaketa, dagokien kargudunekin. Erakundearen gobernua, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagozkio Zuzendaritzari.

Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Eragile teknikaria arduratu ohi izan da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen zion Idazkariorde-kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagozkien Herri Administrazioei, behar diren txostenak prestatuz. Herri Aginteekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere eragile teknikariak burutzen zituen.

Lehen atalean aipatu den bezala, 2003an Idazkariorde-kudeatzailearen jubilazioa gertatu da eta Euskaltzaindiak karguak banatzea erabaki du, eta Idazkariordeari lotu zaizkio eginkizun hauek.

Euskaltzaindiko Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua

Hauek izan dira informatika eta telekomunikazio arloetan egindako lan nagusiak:

- Mantenu lanak: 2003. urtean zehar 663 mantenu intzidentzia gertatu dira guztira. Sailkapena:
 - Laguntza teknikoa erabiltzaileei (% 25,34).
 - Instalazio, hobekuntza eta konfigurazio lanak (% 25,19).
 - Matxurak eta ustegabekoak (% 16,59).
 - Internet zerbitzuak (% 15,84).
 - Ez-ohiko zeregin informatikoetan laguntzea (% 10,86).
 - Birusen kontrako ekintzak (% 2,11).
 - Informatika-segurtasuna (% 4,07).
- Informatizazio egitasmoak:
 - Prentsa-bulego berriaren informatika-ezarpena.
 - Internet sarbideak hobetu eta merketu. ADSL teknologia.
 - Azkue Bibliotekako Artxiboaren tresna informatikoko interfazea berritu.
 - Bibliotekaren inbentarioa egiteko baliabide teknikoak prestatu.
 - Euskaltzaindiaren webgunearen ostatatze-baldintzak hobetu.
 - Hiztegi Batua etiketatzeko egitasmoa prestatu.
 - Datu pertsonalen babes bermatzeko neurriak hartu.
 - Diruzaintzako baliabide berriak: AQUA EBS instalatu. Harpidetzak kudeatzeko modulua eta Aurrekontuak kudeatzeko tresna sortu.
 - Ikastaroa UEUn: WI-FI haririk gabeko sareak.
 - Iruñeko ordezkarietan, EHHAn bulegoaren informatika-ezarpena.
 - 2004rako informatika alorreko aurrekontuak prestatu.
 - EHHAn lantaldearen programa berritzea (lehen fasea).
 - EHHAn argitalpen digitalari buruzko txostena eta prototipoa.
 - Bartzelonara bidaiak: "Noves technologies aplicades a la dialectologia" Biltzarra.

Prentsa eta Komunikazio zerbitzua

2000. urtean sortu zen zerbitzu hau, honako helburu hauekin: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko asmoz, gizarteak Akademiaren jardunaren berri izatea, batetik eta, bestetik, Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea. Lau ataletan biltzen dira zerbitzu horren egitekoak:

- Prentsa: prentsaurrekoen programazioa eta antolaketa; prentsarekiko arreta; prentsa dossiera eta artxiboa.
- Erakundearen beraren hedapena: euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea; erakundearen eta egoitzaren historia laburra idaztea.
- Hemeroteka eta webgunea: prentsako erreferentziak jasota, sistematikoki sailkatzea; Euskaltzaindiaren Prentsa Artxibo Informatikoa (EPAI) egitea; webguneko albisteak eguneratzea, eragile teknikariarekin eta informatika teknikariarekin batera.
- Komunikazioa: egoitzan bertan edota Euskaltzaindiaren kanpo-ekintzak direla eta, sortzen diren harremanen komunikazio-ardura; biltzar, jardunaldi eta antzerako ekintza akademiko nagusia.
- ALBISTE ORRIA. Erakundearen hileroko informaziorako buletina egitea, idazkariordearekin batera.

Aurten, hauek izan dira prentsa bulego honetatik bideratutako ekintza nagusiak:

- Otsailean, Hernanin, ageriko bilkura eta XIII. Barne Jardunaldiak eta, azaroan, Donostian, Kardaberaz III. Mendeurrenako jardunaldia.
- Bartolomé de Carranza-ren V. Mendeurrena, Miranda Argan.
- *Nafarroa Oinez 2003* dela eta, Irunberrin eginiko ekitaldiak.
- Intxausperen omenezko ageriko bilkura, Atharratzen.
- Nafarroako euskalkiei buruzko Jardunaldiak, Uharten.
- Sabino Arana Elkargoarekin batera, "Sabino Arana: Euskara eta kultura" izeneko Jardunaldiak.

Aretoen erabilera

Egoitzako eta Gasteizko ordezkaritzako aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekita egon dira euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekotarako. Euskaltzaindiak berak antolatu dituenez gain, 2003. urtean, egoitzan, hogeitabi erakunde eta elkartek erabili dute aretoa.



Egoitzan, 2003-IV-24an, Juan Luis Goikoetxearen Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian liburuaren aurkezpena (Iker - 13). Ezkerretik eskuinera: Gotzon Lobera, Juan Luis Goikoetxea, Jean Haritschelhar, Nora Dañobeitia eta Iñaki Gaminde.

Atal honen barruan aipamen berezia merezi du Bilbo Zaharra Forum izeneko ekimenak. Izan ere, 2002an, Euskaltzaindiak eta Bilbo Zaharra Euskaltegiko Forumek kultura jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horren ondorioz, Bilboko hirian, euskal kultura sendotu nahian, bai eta indarrak batze aldera ere, elkarlanean jardun dute bi erakundeok. Bilbo Zaharra Forum, euskal literatura eta kulturaren inguruko gaiak jorrazteko, aipatu euskaltegiak antolatutako topagunea dugu. *Euskal kulturaren ajeak eta literatura* deituriko zikloaren barruan, ondoko ekintza hauek izan dira: urtarrilaren 31n Angel Cuerdoren hitzaldi eta diapositiba emanaldia Zanbeze ibaiatz; otsailaren 13an, Unai Elorriagaren hitzaldia; martxoaren 20an, Peru Alberdiren *Kafka Bilbon* izeneko liburuaren aurkezpena; maiatzaren 22an, Itxaro Bordaren hitzaldia; maiatzaren 5ean Mikel Martinezen hitzaldia “Maskarada Antzerki Taldea: “23 urte, 23 antzezlan, irudietan””; azaroaren 13an, Joan Mari Irigoienaren hitzaldia; abenduaren 4an, Peru Alberdiren *Orhoit gutaz* liburuaren aurkezpena eta, abenduaren 11n, Iñaki Lasaren ipuin kontaketa hiru saio.

Horrez gain, Ondarroako Udalak “Augustin de Zubikarai” sariaz, Portugaleteko “Elai Alai Fundazioak, EiTBk, Bilboko Korral Elkartek, IRALEk, Topaguneak, Albaitaritza Euskal Elkartek, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Sabino Arana Elkargoak erabili dute Euskaltzaindiko aretoa.

Talde bisitak

Euskaltzaindiak, euskararen Akademia den aldetik, euskal gizartearengan jakin-mina sortzen du eta, horregatik, hainbat elkartetatik eta ikastetxetatik gerturatzen dira Akademiaren jardura bertatik ezagutzeko. Hala bada, 2003. urtean, egoitzan, 4.118 bisitari izan dira.

ORDEZKARITZAK

GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA

Aita Agustin Kardaberaz idazle gipuzkoarraren III. Mendeurrena ospatu da. Hori dela eta Hernanin, bere jaioterrian, eta bertako Udalaren laguntzaz, Kardaberaz III. Mendeurrena eta XIII. Barne Jardunaldiak antolatu dira otsailean. Honen harira, ordezkaritza honetatik bi aurkezpen egin dira: bata komunikabideei zuzendua, bertan, eta bestea, Hernaniko Kultura Etxean, bertako kultur elkarteentzat. Azaroaren 27an, Deustuko Unibertsitate eta Hernaniko Udalarekin batera egindako jardunaldietan ere parte hartu du ordezkaritza.



Donostian, 2003-XI-27an, Deustuko Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusean, Kardaberaz ome-
nezko Jardunaldia. **Ezkerretik eskuinera:** Txema Mercado, Jose Juan Gonzalez Txabarri, Jose Maria
Guibert eta Jean Haritschelhar.

Ohi den bezala, zenbait batzordek hileroko biltzen jarraitu dute bertako azpiegituraz baliaturik: Gramatika, Literatura Ikerketa, Herri Literatura, *Jagon Saileko Corpus* eta Euskalkiak eta Euskara Batua. Erakundearen Zuzendaritzak eta Osokoen hileroko bilkurak ere maiz egiten dira ordezkaritza honetan.

Eusko Jaurlaritzaren EIMako -Euskal Ikasmaterialetako Hizkuntzaren Egokitasun-iriz-
pideak emateko Aholku Batzorde Teknikoko- kideek bilera bat egin dute ordezkaritza-
bulegoan, eta baita BBK-Euskaltzaindiaren literatura sarien epaimahaikideek ere.

Aipatu behar da bertan kokatzen dela JAGONET zerbitzua, -hizkuntza kontsultak interneten bidez eskaintzen dituen- eta nabarmena izan dela egin duen gorakada.

Gipuzkoako ordezkariak, akademiaren izenean hainbat ekitalditan parte hartu du, *Oroitidazki* honen I. atalean azaltzen den bezala.

ARABAKO ORDEZKARITZA

Erakundearen azpiegiturari dagozkion eginkizunez kanpo, azpimarratu behar da Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, bulego honetan diharduen Toponimia lantaldea eta horren inguruan sortu den lana. Horrela, Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzutik, hiriburuko udaletik, beste herri batzuetatik eta banakako ikerlarien aldetik etorritako hainbat kontsultari erantzun zaizkie.



Gasteizen, Euskaltzaindiaren ordezkarietan, 2003-XII-2an, Jose Pablo de Ulibarriren hiztegiaren aurkezpena. **Ezkerretik eskuinera:** Felix Mugurutz, Patxi Galé, Federico Verastegui eta Henrike Knörr.

Aurtengo harreman estuena Gasteizko Udalarekin izan da, kontuan hartuta azken urteotan hiri hau asko zabaldu dela eta auzo berriak sortu direla. Hori dela eta, Gasteizko ordezkarietan egiten ari den toponimia lana hartuz, Zabalzana poligono berrian irekitzen ari ziren kale berrientzako 35 toponimoren proposamen txostena aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, 2002an, Udaletxean.

2003an, Udalak Zabalzana poligono berriko kale izenei buruz hartutako erabakiak direla eta, hainbat elkarte eta hiritarren aldetik kezak agertu dira. Hori dela eta, bilerak egin dituzte ordezkariak eta lantaldeko kide batek Hirigintzako Zinegotziarekin, Kultura Departamentuko zuzendariarekin eta Euskara Zerbitzuko arduradunarekin. Ondoren, berriro ere proposamen eta iradakokizun berriak helarazi zaizkio Udalari. Gai honi lotutako txostenaz gain, beste eremu eta poligono berriei buruz ere etorri dira kontsultak eta bigarren txostena egin zaio Udalari. Txosten honetan toki-izen hauek aztertu dira:

- Salburuko kale berriak
- Zabalganako 2. eta 3. eremuetako kale berriak
- Ehariko kale berriak
- Lakuako 9. eta 12. poligonoetako kaleak
- Jundiz poligonoko kaleak
- Beste kale batzuenak.

Material hau, aipatutako kaleei dagozkien herri-batzordeetako buruei eta hainbat elkarteri ere eman zaie.

Prensa Zerbitzuaren eskutik, bi prentsaurreko antolatu dira ordezkariak honetan: Trebiñuko Herri Izendegiarena, urtarrilean, eta Jose Pablo Ullibarriren Hiztegiarena abenduaren. Horrez gain, Aramaion, uztailen, Udalak antolatutako II. Uda Ikastaroaren aurkezpena egin da Gasteizko ordezkariak.

Lurralde honetako 14 ikastetxe, institutu eta euskaltegitako ikasle taldeek bisitatu dute Euskaltzaindiaren ordezkariak hau, Akademiaren historia eta oraingo jardueren berri izateko.

Arabako ordezkariak herrialde honetan egin diren kultur ekitaldietan parte hartu du, I. Atalean azaltzen den bezala. Horrez gain hiriko Alkateak deiturik, Gasteiz hiriko Plan Estrategikoa deritzon proiektuaren barruan egindako bileretan ere parte hartu du Euskaltzaindiaren izenean.

NAFARROAKO ORDEZKARITZA

Ordezkaritza honetan Akademiaren azpiegiturak eskatzen dituen lanez gain, 2003. urte honetan honako hauek azpimarra daitezke:

- OCR deritzon sistemaren zerbitzua Iruñeko ordezkariak kokatzea erabaki da. Azken urteotan, dokumentuak automatikoki ezagutzeko sistema honen bidez hainbat lan egin dira. Aurten, honako hauek:




Uharten, Zubiarte Ikastetxean, 2003-X-22an, Nafarroako euskalkie buruzko Jardunaldiak.

- Euskaltzaindiaren Adierazpenak
 - Arabako Toponimia Nagusia (kontzejuak eta herriak).
 - “Bienandanzas e Fortunas” Cod. S. XV.
- Euskalkien lantaldeko bileren koordinazioa egin da.
- Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak antolaturiko “Nafarroako Euskalkiak” deritzon jardunaldietako argibideen zabalkundean parte hartu da.
- “Xorroxin” irriatiak eskatuta, Andres Iñigo ordezkariak eta Patxi Iñigo euskaltzain urgazleak irratsaio bat eman dute “Malerrekako Historia eta euskara” gaiaz.

Toponimia

- Onomastika eta toponimiari buruzko kontsultak erantzun dira, hala nola: Altsasu herriaren izena, bertako Udalak eskatuta; Adios herriko kale-izenak eta *kalea/karrika*; *travesía*; *plaza/enparantza*... moduko hitzak; Berriozar herriko kale-izenak.



Iruñean, Euskaltzaindiaren ordezkari-tzan: Gema Insausti.

- Onomastika batzordeak bi bilera egin ditu ordezkari-tzan.
- Bestalde, erakunde eta elkarteek eskatuta, besteak beste, zerbitzu hauek eman dira:
- Berriozarko kale izenei buruz egindako txostena, Euskal Kultur Elkargoak aurkeztu du Auzitegian. Horren harira, Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria, Auzitegian izan da horren lekukotasuna ematen.
 - Miranda Argan egin dira Bartolomé de Carranza-ren V. Mendeurrenaren inguruan hainbat ekitaldi. Hauen barnean, Euskaltzaindiak osoko bilkura eta ageriko bilkura egin ditu. Ekintza hauen prestaketa, koordinaketa, txosten jasotze eta abarreko lanetan ordezkari-tzak ere hartu du parte.
 - *Nafarroa Oinez 2003ko* ekitaldien barnean, VII. *Jagon* Jardunaldiak, ageriko bilkura eta Onomastika batzordearen bilkura egin dira Irunberrin.

- Sociedad de Estudios Históricos de Navarra elkarteak antolatu dituen Onomastika Jardunaldietan parte hartu du Euskaltzaindiak: Andres Iñigok antolaketan eta, horrez gain, Henrike Knörr-ek, Patxi Salaberrik eta Andres Iñigok hitzaldi bana-rekin.

BAIONAKO ORDEZKARITZA

Bilerak

- Frantziako Estatuko Elkarte-legearen arabera egin da urteko bilera Baionako ordezkariari, euskaltzain oso eta urgazleek parte hartu dutelarik.
- Urtean zehar 11 bilera egin dira ordezkariari dagokion kudeaketa egiteko. Bilera hauetan Jean Haritschelhar buruak, Beñat Oihartzabalek, Pierre Charritton ordezkariak eta Annie Etxeberrik parte hartu dute.
- Emmanuel Inchauspere menduarena ospatuz, Atharratzen egin diren jardunaldietako prestaketa lanetan lagundu du ordezkariak.
- Euskararen Herri Hizkeren Atlas batzordeak zenbait bilera egin ditu ordezkariaren honetan.
- Ika-Bi elkartearekin dagoen hitzarmenaren arabera, jarraitu da elkarlanean irakas-kuntzan erabiltzen diren testuliburuaren euskararen egokitasuna aztertzen.

Toponimia

- Garapen Kontseiluko eta Institute Geographique Nationaleko (IGN) ordezkariekin izan dira hainbat bilera, Ipar Euskal Herriko toponimia finkatzeaz dagoen proiektuari buruz mintzatzeko: IGN-k duen datu-basearen erabilera, lanaren jarduera, hitzarmenak, etab. Horretarako, dagozkion txostenak prestatu dira eta hiru bekadun hitzartu Zuberoan zehar inkestak egiteko.
- Irisarriko toponimia landu da.
- Abenduan, Baionako Kontseilu Orokorreko areto nagusian, Ipar Euskal Herriko toponimia bilketa lanaren hausnarketa egin da bilera batean: 2003. urtean egindako lana eta 2004. urteko aurreikusitakoa.

Aurkezpenak

Baionako Kontseilu Orokorreko areto nagusian, Pedro de Yrizarren Zuberoako aditz laguntzaileari buruzko liburukia aurkeztu da, otsailean.



Baionan, 2003-II-13an, Kontseilu Orokorreko areto nagusian, Pedro de Yrizarrek Zuberoako aditz laguntzaileaz idatzitako liburukia aurkeztu da. **Ezkerretik eskuinera:** Koldo Artola, Xabier Kintana, Jean Haritschelhar eta Andres Urrutia.

Piarres Lafitteren omenez, Baionako Fakultatean 2001ean gauzatu ziren Gramatika eta Literatura Jardunaldietako txostenak jasotzen dituen *Iker 14* liburuaen aurkezpena egin da azaroan.

Diru-laguntzak

Urtean zehar, hainbat entpresak eta udalek Euskaltzaindiari ematen dizkioten diru-laguntzak jaso dira. Enpresen artean Aiherreko Geroa, Eskulanak, Seguí, TICEM, Loreki; Hendaiaiko Sallaberry eta Sokoia; Itsasuko Charritton EURL eta Etchart-Irissarry. Horiez gainera, 29 udalek ere diruz lagundu dute Euskaltzaindia. Laguntza hauek gehitzen doaz: iaz baino enpresa bat eta bi udal gehiago.

“D Gaitasun Agiria”

Euskaltzaindiak “D mailako Irakasle Diploma” ematen jarraitzen du Iparraldean Baionako ordezkariak honen bidez. Euskaltzaindiaren otsailaren osoko bilkuran titulu honen izena aldatzea onartu da: aurrerantzean “D gaitasun agiria” izango da.

Agiri hau eskuratzeko, maiatzaren 31n eta ekainaren 14an egin dira lehen txandako probak eta, urriaren 11n eta 18an, bigarrenekoak. Denetara 65 ikaslek gainditu dituzte azterketok.

III.2. AZKUE BIBLIOTEKA

Azkue Bibliotekaren baitan bi alderdi bereizten dira: alde batetik zerbitzua, mota guztietako dokumentuak eskuratu, antolatu eta ikerleen eskura jarritz, eta bestetik batzordea, zeinaren eginkizuna baita lan horiek zehaztea eta eskaintzea.

III.2.1. AZKUE BIBLIOTEKA ZERBITZUA

Biblioteka eta artxiboa

Erabiltzaile kopurua: 743
Erabiltzaile berriak: 74
Eskaera bibliografiko arruntak: 1.013
Barne mailegu zerbitzua: 134
Erreprografia zerbitzua: 13.174

Bibliotekako funtsak

Erregistroak katalogoan: 48.979 (bideoak, zintak, mapak, CDak, etab. katalogatu gabe daude).

Aldizkariak: 1.941 (328 bizirik, 1.613 etenda).

Eskurapenak

	<u>Aleak</u>	<u>Balioa</u>
- Erositako liburuak	313	4.001,67 euro
- Aldizkariak (erosiak)	38 (izenburu)	1.314,57 euro
- Dohainikoak / trukezkoak	742	
- Orotara	1.193	5.316,24 euro

Beraz, 2003an 5.316,24 euro gastatu dira liburu eta aldizkariak erosten. Horrez gain, 617,39 euro aldizkarien azaleztapenetan. Ikus daitekeenez, aurten ere oso erosketa gutxi egin dira, Euskaltzaindiaren diru-egoera larriagatik.

Dokumentazio eta informazio zerbitzua

Ahozko kontsulta bibliografiko arruntak: 700 inguru
Idatzizko kontsulta bibliografiko bereziak eta eskariak: 327

Horietatik batzuk banako ikerlariak eginikoak dira eta beste batzuk erakunde, elkarte edo enpresaren batek eginikoak. Hauexek dira idatzizko kontsulta bereziak egin dituzten batzuk:

Euskal Herrikoak:

- Aldaketa 16
- Anboto aldizkaria
- Argazki Press
- BBK
- Deia egunkaria
- EHU
- EITB

- Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zerbitzua
- *Giltza* argitaletxea
- HABE
- *Ibaizabal* argitaletxea
- Koldo Mitxelena Kulturunea
- *Pays Basque Magazine*
- *Susa* argitaletxea
- UEU
- Zenbait udal (Hondarribia, Zestoa...) etab.

Euskal Herritik kanpokoak:

- *Santillana* argitaletxea
- Oxford University Press
- Errioxako Gobernuko Gazteria zerbitzua
- Freiburg Universität
- Argentinako Fundación Juan de Garay, etab.

Azpimarratzekoa da gero eta galdera gehiago iristen dela internet bidez eta frankotan ez dagoela jakiterik eskatzailea, adibidez, Amerikatik ari den ala Euskal Herritik bertatik.

Azkue Bibliotekako katalogo zerbitzua

Hiru ataletan sail daiteke, hurrenez hurren, zerbitzu honetan egin diren lanak:

Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK)

Aurten bi eragiketa garrantzitsu burutu dira: alde batetik katalogoan arazketa sakona egin da, fitxa akastunak ezabatuz eta burutu gabe zeuden zenbait dokumentu-multzo guztiz bukatuz. Ondorioz, une honetan ez dago alderik ABKren bertsio osoaren eta web bertsioaren artean, hots, katalogatuta dagoen guzti-guztia ikus daiteke. Bestetik, katalogatutako funtsen inbentarioa burutu da, katalogoko monografia eta aldizkari guztiak banan-banan ikuskatuz eta okerrak zuzenduz. Honezaz gain, jaso diren funts berriak ere katalogatu dira.

Batetik, 3.654 sarrera berri egin dira ABKn, eta horietako 1.276 Durangoko Gerediaga Elkartek egindako dohaintzari esker jasoak; eta, bestetik, alfabeto zirilikoz idatzitako 188 liburu eta aldizkari katalogatu dira.

Orobat, aipatu behar da aurten katalogatu direla Eusko Legebiltzarrak dohainik emandako 360 liburuen kopia digitalizatuak (Juan Ramon Urkixo ondarea), ABKn txertatuz.

Azkue Bibliotekaren Artxiboa

Resurreccion Maria Azkueren Artxiboa

Katalogatzea burututa dago. Guztira 132 kutxa ditu, 2.151 fitxa eta datu-base osagarri bat euskal kantutegiaren 4.699 kantu-bertsioei buruzko informazioarekin.

Antonio Tovarren Artxiboa

Antonio Tovarren artxiboaren gida egin da, txosten akademiko baten forma hartu duena (*Guía del archivo de Antonio Tovar Llorente*).

Andima Ibiñagabeitiaren Artxiboa

Oraingoz begiratu orokor bat eman zaio eta gutuneriaren atonketari ekin.

Dagerre egitasmoa

Izen horrekin, Azkue Bibliotekan egiten den digitalizaio-lanari deitzen zaio; 2003. urtean, guztira 155 dokumentu digitalizatu dira. Horietatik, 47 Olaso Dorrekoak dira, 47

liburu Lacombe ondarekoak, 25 liburu Jazinto Iturberen ondarekoak eta, beste 36ak, beste hainbat iturritakoak.

Euskera agerkaria

Euskera agerkariaren zati bat (1919-1979) aspalditik dago digitalizatua CD batean. Orain digitalizatutako dokumentuok ABK-ko sarrera katalogafikoekin lotu dira eta, hartara, posible da, fitxa katalogafikoa ikustea ez ezik, horren bitartez testua bera ordenagailuaren pantailan ateratzea. Lan horrek, digitalizatutako 1.598 testu ABKn txertatzea ekarri du.

III.2.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Katalogazioa zuzendu eta osatu

Urteko lan nagusia, katalogazio-erregelak berraztertze-prozesuari hasiera ematea izan da. Ildo horretan, sei katalogazio-erregela berrikusi eta onartu dira.

Jakina denez, Azkue Bibliotekako Katalogatzea da euskara hutsean burutzen ari den lehenengo katalogo bibliografikoa. Horrek, irizpideak; sistematikoki katalogazio-erregeletan biltzera eraman du Euskaltzaindia, 2002 bitartean hogeita bat katalogazio-erregela onartu zirelarik. 2003an, erregela horiek berrikusteari ekin zaio, zenbait kasutan aldaketa sakonak eginez.

2003an zehar, sei katalogazio-erregela hauek berrikusi dira:

- *Euskal Herriko Historiari buruzko dokumentuak katalogatzeko erregela.*
- *Foruei buruzko dokumentuak katalogatzeko erregela.*
- *Gaztelania ala espainiera?*
- *Literaturari buruzko dokumentuak katalogatzeko erregela.*
- *Munduko hizkuntzei buruzko dokumentuak katalogatzeko erregela.*
- *Etnologia eta Antropologiari buruzko dokumentuak katalogatzeko erregela.*

Berrikusketa honen helburua, oro har, irizpide orekatu eta argiagoak ematea izan da.

Olaso Dorrea Sorrerakundea

Lehendik datorren elkar-laguntzari segida eman zaio, bereziki liburuen digitalizazioari dagokionez. Horretaz gain, *H.R. Southworth-en bibliotekari buruz* izeneko txostena egin da, Euskaltzaindiak fundazio horrekin duen elkar-laguntzaren baitan.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

Azkue Bibliotekako zuzendariak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak abiatutako itzulpen egitasmo batean parte hartzen jarraitu du, hots, Espainiako Kultura Ministerioaren *Reglas de Catalogación* delakoen itzulpenean.

III.3. ARGITALPENAK

III.3.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Argitalpen batzordearen eta Argitalpen Eragilearen gidaritzapean argitalpen hauek bideratu dira 2003. urtean:

1. *Euskera*, 2002, 2

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: VII. Herri Literatura Jardunaldiak (I), VI. *Jagon* Jardunaldiak, Hitzarmenak (Nafarroako Gobernuarekikoa, Eusko Jaurlaritza eta hiru diputazioekikoa, Bilboko Udalarekikoa, Bilbo Zaharra Euskaltegiarekikoa), Nafarroa Oinez-2002, Arantzazuko Frantziskotarren omenaldia eta hilberri txostenak. 600 orrialde.



Egoitzan, 2003-VI-26an, Argitalpen batzordearen bilera. Ezkerretik eskuinera: Andolin Eguzkitza, Beñat Oihartzabal, Jean Haritschelhar, Ricardo Badiola, Jose Antonio Arana Martija eta Henrike Knörr.

2. *Euskera*, 2003, 1

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, literatura-sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: Kardaberazen III. Mendeurrena; VII. Herri Literatura Jardunaldiak (II); Federiko Belaustegigoitiaren omenaldia; Bartolomé de Carranzaren V. Mendeurrena; urgazle berrien izendapena eta diploma banatzea; liburu batzuen aur-

kezpenak; Bilboko XXXIII. Liburu Azoka eta, Begoña Amundarain Uriarteri zilarrezko domina ematea. 488 orrialde.

3. Euskaltzaindiaren *ARAUAK*.

Hauek dira 2003an zehar, 3. karpetan, XXII. eta XXIII. sortetan argitaratu diren hizkuntza-arauak:

- 123. Hiztegi Batua: *aloe* - *analogiko*
- 124. Hiztegi Batua: *analogo* - *antzoki*
- 125. *San*, *santu*, *done* eta besteren erabilera
- 126. Hiztegi Batua: *antzu* - *arbindu*
- 127. Hiztegi Batua: *arbitrario* - *arlotetu*
- 128. Nafarroa Behereko herri izendegia (II)
- 129. Aita santuen izenak
- 130. Hiztegi Batua: *arma* - *arrimu*.

4. Euskaltzaindiaren 2002ko Oroitidazkia

Liburu honetan, Akademiak urte horretan buruturiko ekintza eta lanen zehaztasunak ematen dira. Liburu horrek 318 orrialde ditu.

5. Hondarribiko Toponimia

Joxe Jabier Furundarena Salsamendik prestatua, Onomastika batzordeak gainbegiratu eta Hondarribiko Udalaren diru-laguntzarekin argitaratua. Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* bildumako 23. zenbakia da. 936 orrialdeko liburua.

6. Euskalkia eta hezkuntza. *Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*

Juan Luis Goikoetxeak idatzitako *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian* izeneko liburua argitaratu du Euskaltzaindiak. Liburuak Akademiaren *Iker* bildumaren 13. zenbakia darama eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Saila, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa eta Mendebalde Kultur Alkartea izan dira argitalpen horren babesleak. CD-ROMean ere kaleratu da liburua. 282 orrialde dauzka.

7. Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian (I) eta (II)

Baionako Fakultatean, P. Lafitteren mendeurrenean, 2001eko irailaren 20an eta 21ean, Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarraren barruan, egin ziren Jardunaldietako hitzaldiak eta txostenak biltzen dira bi liburuki hauetan: I. liburukian, *Gramatika* gaiak eta, II. liburukian, *Literatura* gaiak. Jardunaldi haiek –eta liburuki hauek– Baionako Fakultateko *Iker* taldeak eta Euskaltzaindiak prestatuak izan dira. I. liburukiak 462 orrialde ditu eta, II.ak 284. Erakunde hauek babestu dute argitalpen hau: Akitaniako Kultura Ekintzarako Herrialde Zuzendaritzak (DRAC), Akitaniako Herrialdeko Kontseiluak, Eusko Jaurlaritzak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak eta Euskaltzaindiak. Euskaltzaindiaren *Iker* bildumako 14. liburukia dugu.

8. Arnaud Oihenart-en *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*

Liburu hau Patxi Altunak eta Jose Antonio Mujikak paratu dute, eta Deustuko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenean kokatzen da. *Iker* bildumako 15. zenbakia darama, eta 536 orrialde ditu.

9. Jose Paulo Ulibarriren *Euskal hiztegia / Diccionario Vasco*

Aunia Elkarteak prestatua eta Euskaltzaindiarekin koedizioan argitaratua, eta Arabako Foru Aldundiak babestua. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordekide den Patxi Galé Garcíaak transkribatu eta ordenatu du *Euskal Hiztegia / Diccionario Vasco* liburua. Jose Paulo Ulibarririk utzitako *Gutunliburua* izeneko eskuizkributik hartua. 140 orrialdekoa da.

10. *Euskaltzaindiaren Arautegia eta Barne Erregelak*

Arautegi eta Barne Erregela berriztatuak biltzen dira liburuxka honetan. Edizio eguneratu eta hornitua. 68 orrialde.

11. *Narrazioak eta olerkiak 2002: R. M^a Azkue saria*

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak elkarrekin argitaratutako lana. 2002ko Azkue Sariak irabazi zituztenen lanak kaleratzen dituen argitalpena da; 98 orrialde duazka.

12. *Bost ahizpa*

Aitor Arana. 2002. urteko 'Txomin Agirre' eleberri saria; 130 orrialde.

13. *Lagun mina*

Aitor Arana. 2002. urteko 'Toribio Alzaga' antzerki saria; 60 orrialde.

14. *Jean Pierre Goytino eta Californiako Eskual Herria*

Xipri Arbelbide Mendiburu. 2002. urteko 'Mikel Zarate' saio saria; 212 orrialde.

III.3.2. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

Argitalpen salmenta

Euskaltzaindiak argitalpenen hedapen-salmenta banatzaileen bitartez egiten du, gehienbat. Hala ere, *Euskaltzaindiaren Arauak* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan, harpidetza sistema erabiltzen du eta, ondorioz, argitalpen zerbitzuaren bezeroekiko harremana zuzenagoa izaten da.

Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak, 2003. urte bukaeran 1.971 izan dira, eta *Euskera* agerkariarenak, berriz, 352. Gainerako argitalpenei dagokienez, liburu-dendei 48 ale saldu zaizkie; banatzaileei, gizabanako eta erakunde desberdinei 747.

Ohiko salmentekin eta *Arauen* zein *Euskera* agerkariaren harpidetzekin lortutako diru emaitza 88.802 €koa izan da, iaz baino gutxiago.

Merkataritza ikuspegia

Liburu-dendei eginiko salmentak bere horretan mantendu dira. Gizabanakoei eginikoek, ostera, gora egin dute. Beraz, banatzaile eta harpidedunei eginiko salmentetan aurkitu behar da salmentek 2003. urtean izan duten beherakadaren zergatia. Bi arrazoi nagusi aurki ditzakegu:

1. Harpidedun kopuruaren beherakada. Honek zergati hirukoitza du:

- Azken aldian gutxi ekoiztu da eta honen ondorioz bezero zenbaitek harpidetza bertan behera uztea erabaki dute, nahiz eta badirudien joera hori zuzentzen hasi dela.
- Baziren hainbat harpidedun, harpidetza eten ez, baina ordaintzen ez zutenak, maiz argitalpenen bila ere joaten ez zirenak. Hauetako gehienei baja emanez, fakturazioaren eta benetan kobratzen denaren arteko oreka handiagoa ahalbidetuko da.
- Kontuan hartu behar da Euskaltzaindiak interneten jartzen dituela *Arauak*, dohainik, eta honek ere badu eragina, zalantzarik gabe, paperezko argitalpenaren salmentan.


2. Banatzaileei salmenta urriagoa

- Arrazoi nagusia oso xumea da. Iaz Abarka-ri, azokaz azoka dabilen enpresari, eskaintza berezia egin zitzaion, argitalpen zenbait % 75eko beherapenarekin eskainiz. Hiru mila aletik gora erosi zituen eta horrek sortu du, hain zuzen, desoreka handiena.
- Bitarte banaketa-enpresari iaz fakturatu zitzaion azken hiru urteotako salmenta. Aurten, ordea, urteko lehenengo sei hilabeteak bakarrik kobratu zaizkio urtearen buruan, bigarren sei hilabeteak 2004an fakturatzeko utziaz. Ohiko eran egin izan balitz, iaz baino zertxobait gehiago salduko zen.
- Aipatzekoa da webgunetik jasotako eskariek izan duten gorakada. Jaso diren eskarietatik, % 60 inguru e-mail bidezkoak izan dira. Besterik da salmenta, jakina baita bide hau partikularrek erabiltzen dutela, argitalpen kopuru txikiena eskatzen dutenek alegia.
- Gehien saltzen diren argitalpenak, *Euskera 2000, 2 (Hiztegi Batua)* eta *Euskal Izendegia* izaten jarraitzen dute. Trukezko harremanetan, 578 ale banatu dira.

Azokak

Urriaren 1etik 4ra, Euskaltzaindiaren argitalpen zerbitzua Liber 2003 (Feria del Libro Iberoamericano) azokan izan da, Madrilen, Institut d'Estudis Catalans eta Consello de Cultura Galegarekin batera. Esperientzia interesgarria, besteren artean, Akademien arteko harremana sendotzeko.

Abenduan, ordea, eta ohiturari jarraikiz, Durangon egin da Euskal Liburu eta Disko Azokaren 38. Edizioa. Beti legez bertan izan da Akademia, beraren azken produktuak aurkeztu eta bisitariari behar adina informazio eta argibide ematen.



Durangon, 2003-XII-6an, 38. Liburu eta Disko Azokan. **Ezkerretik eskuinera:** Jon Artza eta Ricardo Badiola.

Euskal Herrian zehar egin diren beste zenbait liburu- eta disko-azokatan, zuzenean joan ez arren, Akademiaren argitalpenak banatzaileen bitartez izan dira, batik bat alor honetan aritzen den *Abarka* enpresarekin eginiko kudeaketan ondorioz.

Gordailua

Euskaltzaindiak Bilbo ondoko Etxebarri herrian daukan gordailuak bi xede nagusi izan ditu, hots:

1. Argitalpenak gordetzea

- Salgai dauden argitalpenen gordailu izatea, ohi bezala.
- 2003. urtean zehar, salgai izan diren argitalpen guztien inbentario zehatza egin da eta argitalpenen kokatze- eta berrantolatze-lanekin jarraitu.

2. Artxiboa

Erakundearen artxiboak, betetzen duen funtzioaren arabera, bi alor ditu:

- Barne-artxiboa: Euskaltzaindiak, urteetan zehar bildu, landu eta ekoiztu duen dokumentazio sailkatua gordetzeko erabiltzen dena.
- Kanpo-artxiboa: Euskaltzaindiak izandako harremanak kanpoko erakunde, elkarte, talde eta abarri erosiz, trukatu zein dohainik jasoz, bildu diren material sailkatuen gordetegia, hots, liburuak, aldizkariak, egunkariak, posterrak eta abar, gordetzeko erabilia.

IV. Aurrekontuak

IV. AURREKONTUAK

IV.1. BALANTZEA

Gastuak	2.769.859,05
Erosketak eta gastuak	288,46
Kanpo zerbitzuak	367.307,95
Batzorde eta egitasmoak	657.774,49
Egitasmo bereziak	525.502,00
Zergak	7.876,38
Gizabanakoei ordainketak	970.627,09
Beste zenbait gestio gastu	6.693,00
Finantza gastuak	34.309,03
Bestelako gastuak	16.036,49
Amortizazio zuzkidurak	112.871,31
Traf. kaudimen hornidurak	4.919,94
Galdu - irabaziak	65.652,91
Sarrerak	2.769.859,05
Salmentak	85.385,98
Ustiaketarako laguntzak	1.746.179,88
Laguntza helburutuak	765.576,05
Bestelako laguntzak	3.012,21
Kudeaketa sarrerak	41.114,91
Sarrera finantzarioak	11,19
Aparteko sarrerak	256,41
Kapital laguntzak	95.489,42
Aurreko ekitaldiko mozkinak	32.833,00

V. Herri administrazio eta Erakundeak

V. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK

V.1. EUSKO JAURLARITZA ETA HIRU DIPUTAZIOAK

Gipuzkoako eta Arabako Diputazioetan

Aginte-aldi hasieran, agintari izendatu berriak agurtzeko ohitura du Euskaltzaindiak. Horrela bada, uztailaren 18an, Joxe Juan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusiak Euskaltzaindia hartu du; uztailaren 29an, aldiz, Federico Verastegui Arabako Kultura diputatuak.



Donostian, 2003-VII-18an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian. **Ezkerretik eskuinera:** Jose Juan Gonzalez de Txabarri, Jean Haritschelhar, Xabier Kintana eta Juan Jose Zearreta.

Bestetik, urriaren 9an, Joxe Juan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusiak erakunde hauek bildu ditu Gipuzkoako Diputazioan: Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Aranzadi eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak. Akademiaren izenean Euskaltzainburua joan da. Diputatu nagusiak, batetik, erakunde horiekin aldiro-aldiro harremana izan nahi duela adierazi die eta, bestetik, kasuan kasuko egitasmoak bultzatzeko hitzarmenak egiteko ere prest dagoela.

Errendapen-txostenak

Herri Aginteein sinatutako Hitzarmenaren arabera, ezarritako epeetan, egitasmo eta batzorde akademikoen lanen errendapen-txostenak bidaltzen dizkie Euskaltzaindiak Herri Administrazioei. Aurten, bi aldiz igorri zaizkie errendapen-txosten hauek: martxoan, 2002ko bigarren seihilabetekoak eta, irailean, 2003ko urtarril-ekain bitartekoak.

Bietan, hauen lana jaso da: *Orotariko Euskal Hiztegia*, Hiztegi Batuko lantaldea, UZEI: Hiztegi Batua eta EEBS, Gramatika batzordea, Dialektologia batzordea (Atlasa), Onomastika batzordea, Herri Literatura azpibatzerdea, Literatura Ikerketa azpibatzerdea, Euskara Batuko batzordea, *Jagoneko Corpus* batzordea, *Jagoneko Sustapen* batzordea, Azkue Biblioteka eta Argitalpen batzordeak.

Jarraipen Batzordearen bilerak

Urriaren 3an egin da, Eusko Jaurlaritzan, hiru Diputazioek eta Jaurlaritzak Euskaltzaindiarekin sinatua duten Hitzarmeneko Jarraipen Batzordearen bilera. Administrazioen aldetik hauek izan dira: Miren Azkarate, Kultura sailburua; Patxi Goenaga, Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Imanol Agote, Gipuzkoako Kultura zuzendaria; Gotzon Lobera, Bizkaiko Euskara zuzendaria eta Federico Verastegui, Arabako Kultura diputatua. Euskaltzainditik, hauek: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Beñat Oihartzabal, *Iker* sailburua eta Andres Urrutia, *Jagon* sailburua. Bileraren gai nagusiak hauek izan dira: batetik, Euskaltzaindiaren diru-egoera eta, bestetik, hitzarmen berriaren eredia.

2003ko Eranskina sinatzea

Maiatzaren 13an sinatu da Euskaltzaindiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginteen arteko aurtengo Eranskina edo Protokoloa. Hauek sinatu dute: Eusko Jaurlaritzatik, Patxi Goenaga Mendizabal Hizkuntza Politikarako sailburuordeak; Arabako Foru Aldunditik, Pedro Sancristóval Murua Kultura diputatuak; Bizkaiko Foru Aldunditik, Ana Madariaga Ugarte Kultura diputatuak; Gipuzkoako Foru Aldunditik, Luis Maria Bandres Unanue Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol diputatuak; Euskaltzainditik, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.

V.2. NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Gobernuburuarekin

Euskaltzaindiak agintari izendatu berriak agurtzeko duen ohiturari jarraituz, urriaren 29an, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuburuak hartu du Akademia.


Jarraipen Batzordearen bilerak

Uztailaren 3an bildu da, Iruñean, Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea, Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan. Gobernuaren aldetik hauek izan dira: Pedro Pegenaute, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; Fermin Villanueva, Hizkuntzaren Garapen, Programazio eta Ikerketa Zerbitzuko zuzendaria eta Julen Calvo, Hizkuntzaren Garapen Sailaren burua; Euskaltzainditik, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Andres Urrutia, *Jagon* sailburua; Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria eta, Juanjo Zearreta, kudeatzailea. Bileraren xedea, Nafarroko Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko 2003ko Protokoloa prestatzea izan da.

Abenduaren 15ean, Jarraipen Batzordea berriro bildu da Iruñean, Gobernuaren egoitzan; 2003. urteko protokoloan jasotako lanen egoera aztertu da eta Batzorde Teknikoak prestatutako txostena ontzat eman.

Nafarroako Gobernuarekiko 2003ko Protokoloa

Euskaltzaindiak 2002an sinatu zuen hitzarmena Nafarroako Gobernuarekin eta 2003ko uztailaren 3an sinatu dute bi erakundeek aurtengo Protokoloa. Nafarroako Gobernuaren izenean Pedro Pegenaute Gardek sinatu du, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eta, Euskaltzainditik, Jean Haritschelhar Duhalde euskaltzainburuak.



Uharten, 2003-X-23an, Zubiarte Ikastetxean, Nafarroako euskalkiei buruzko Jardunaldiak. **Ezkerretik eskuinera:** Gotzon Aurrekoetxea eta Juan Luis Goikoetxea.

Akordioak zehazten duenez, hauek dira Euskaltzaindiak 2003. urtean zehar bete beharreko eginkizunak:

- Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) egiteko bildu ziren Nafarroako 3 herritako grabazioak euskarritan paratu eta ematea.
- Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko lehen liburukirako, Nafarroari dagokion edukien argitalpen bereiztu eta banandua ahalbidetuko duen informatika programaren berritzea.
- Baztango Euskalkiaren Gramatika prestatzeko lanak abiatzea.
- Nafarroako euskalkien hizkuntza ikerketarako plan bati buruzko txostena egitea.
- Bi libururen argitalpena, bi erakundeak ados jarrita.
- Nafarroako euskalkien inguruko jardunaldiak prestatzea. Jardunaldi hauek, urriaren 22an eta 23an burutu dira, Uharten, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan, Zubiarte eraikinean. Hizlariak hauek izan dira: Iñaki Camino, Gotzon Aurrekoetxea, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo eta Paskual Rekalde.
- Euskaltzaindiak garatzen dituen eta aurrekoen euskarri diren izaera orokorreko gainerako jarduerak.

Batzorde Teknikoaren bilerak

Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Batzorde Teknikoa bost aldiz bildu da aurtten, gehienetan Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzan, Iruñean. Hauek dira egindako bilera guztiak:



Iruñean, 2003-X-22an, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailean, Batzorde Teknikoaren bilera. **Ezkerretik eskuinera:** Adoración López, Mikel Arregi, Juan Jose Zearreta eta Iñaki Ayesa.

Martxoaren 11n, Euskaltzaindiaren izenean, Juan Jose Zearreta eta Pello Telleria izan dira eta, Gobernuarenean, Adoración López, Mikel Arregi, Julen Calvo eta Jose Andres Alvaro. Bileraren xede nagusia, 2002ko Protokoloan ezarritako eginkizunen jarraipena egitea izan da. Euskaltzaindiaren ordezkariak, Akademiak 2002ko uztailetik abendura bitartean egun zituen lanen errendapen-txostena eman diete Nafarroako Gobernuaren ordezkariak.

Ekainaren 11n, Gobernuaren aldetik hauek izan dira: Adoración López, Mikel Arregi eta Julen Calvo; Euskaltzainditik Juanjo Zearreta eta Pello Telleria. Bileraren xedea, Nafarroko Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren 2003ko Protokoloa prestatzea izan da.

Irailaren 19an, Nafarroako Gobernuaren aldetik hauek izan dira: Adoración López, Mikel Arregi eta Iñaki Ayesa; Euskaltzainditik, Juanjo Zearreta eta Pello Telleria. Bileraren xedea, bi erakundeek urriaren 22 eta 23rako antolatutako Nafarroako euskalkiei buruzko jardunaldien azken xehetasunak lotzea izan da.

Urriaren 22an, Nafarroako Gobernuaren aldetik hauek izan dira: Adoración López, Mikel Arregi eta Iñaki Ayesa; Euskaltzainditik, Juanjo Zearreta eta Pello Telleria. Bileraren xede nagusia, 2004. urterako Protokoloa prestatzea izan da, eta egun hartan bertan haste-koak ziren jardunaldien azken xehetasunen berri eman da.

Azaroaren 18an, Nafarroako Gobernuaren aldetik hauek izan dira: Adoración López, Mikel Arregi eta Iñaki Ayesa; Euskaltzainditik, Juanjo Zearreta eta Pello Telleria. Bilerako gaiak: 2003. urteko balantzea eta 2004. urterako lan proposamena.

V.3. ESTATU ADMINISTRAZIOA

Espainiako Administrazio Zentraleko Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren Unibertsitate eta Ikerketarako Estatu Idazkaritzan dago ofizialki kokatua Euskaltzaindia. Hizkuntza Akademiarentzako aurrekontu orokor bat dauka Ministerioak, nondik gauzatzen den gure Akademiarentzako diru-laguntza, Espainiako, Galiziako eta Kataluniako erakunde-etako kideekin batera.

V. 4. IPARRALDEKO HERRI AGINTEAK

Herri Aginteek, 2000. urtean egindako Euskal Herrirako Berriazko Hitzarmenean, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion, eta, ondorioz, administrazio desberdinek beren laguntzak ematen dizkiote Euskaltzaindiari.

Frantziako Errepublika

Euskaltzaindiak eta Frantziako Errepublikak sinatua dute elkarren arteko lankidetzahitzarmena. Urtero-urtero, Akademiak Estatuari bidaltzen dio urtean zehar egindako lanaren berri ematen duen errendapen-txostena.

Akitania

Azaroaren 4an sinatu dute hitzarmena Euskaltzaindiak eta Akitania Herrialdeko Kontseiluak. Euskaltzaindiaren izenean, Jean Haritschelharrek sinatu du eta Akitaniaren izenean Jean-Luc Mercadek, Akitaniako Zerbitzu zuzendari orokorrak, Alain Rousset presidentearen izenean.

Pirinio Atlantikoak

Maiatzaren 27an sinatu da 2003. urteari dagokion hitzarmena, Euskaltzaindiaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorraren artean. Jean Jacques Lasserre Kontseiluko presidentearak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sinatu dute.

Frantziako Institutu Geografiko Nazionala

Baionan, ekainaren 27an, hitzarmena sinatu dute Euskaltzaindiak eta Frantziako L'Institut Geographique National-ek. *Hitzarmen* horren xedea, Iparraldeko euskal toponimia zehaztea eta finkatzea da.

V. 5. UDALAK

EUDEL

Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) eta Euskaltzaindiaren arteko bigarren hitzarmenaren ondorioz -2001eko uztailaren 11n sinatu zena- udalek seinalizatu behar dituzten toki-izenen arloan laguntza teknikoa ematen die Akademiak Toki Erakundeei.

Helburua honako hauxe da: udalei, kontzejuei eta mankomunitateei, industrialde, auzoberri, etxebizitza-poligono, naturgune, parke, atsedenleku, zerbitzugune, herri-baso eta bestelako izeneei buruzko irizpenak egitea.

Bilbo

Iaz Bilboko Udalak eta Euskaltzaindiak *hitzarmena* sinatu zuten eta *hitzarmen* horretan esaten dena betez, honako dokumentazio hau helarazi zaio Bilboko Udalari urtarrilean:

1. Euskaltzaindiko batzorde eta egitasmoek 2002ko 1. seihilabetean burutu zituzten lanen errendapen-txostena.
2. Euskaltzaindiaren egoitzan, 2002. urtean zehar burutu ziren kultur hedapeneko ekintza desberdinen berri ematen duen txostena: ikastaroak, aurkezpenak eta hitzaldiak.
3. Euskaltzaindiak 2003. urtean egitea begiz jotako eginkizunak, batzordez batzorde.

Donostia

“Xalbador” bertsolaria kalean, Donostiako Udalak duen eraikuntza bat erabiltzen du Euskaltzaindiak, 2001etik, egitasmo akademikoetarako. Une honetan *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lantaldea dago bertan kokatua. 2002. urtean burutu zituen lan garrantzitsuenei buruzko informazioa biltzen duen txostena helarazi dio Akademiak Donostiako Udalari. Txosten horretan, Euskaltzaindiko *Iker* eta *Jagon* Saisetako batzorde eta egitasmoen lana jaso da.

Gasteiz

Euskaltzaindiak, Gasteizko Udalarekin sinatua du *hitzarmena*, zeinek hiriburu horretako ordezkarietan, udal-barruti osoaren herriz herriko toponimia ikertzen eta normalizatzen diharduen lantaldea -nagusiki- eta ordezkarietako herri zerbitzuak babesten dituen.

Akademiak, 2002ko ekainetik 2003ko uztailean bitartean egindako lanen errendapen txostena aurkeztu zaio Udalari. Hauek dira txosten horretan agertzen diren gai nagusiak:

- Euskaltzaindiak Gasteizen duen ordezkarietako eman dituen zerbitzuak
- Gasteizko Toponimia lantaldearen lana
- Kasuan kasuko zerbitzuak
- Kontu-errendapena.

Iruñea

Azaroaren 18an, urtebeteko iraupena duen *hitzarmena* sinatu dute Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean, Ignacio Pérez Cabañas zinegotzi delegatuak eta, Euskaltzaindiaren, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. *Hitzarmen* horren helburuak honako hauek dira:



Iruñeko Udaletxean, 2003-XI-18an, Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena sinatzerakoan. Ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Ignacio Pérez Cabañas eta Andres Iñigo.

- Euskaltzaindia Iruñeko Udalari aholku emateko zereginetan aritu ahalko da, euskarekin zerikusirik duten hizkuntza aferetan bezainbatean.
- Hiritarrek eskaturiko argibideak eta aholkuak oro eskaintzen jarraituko du, hala bere zerbitzu orokorretan nola Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkarietan.
- Kultura hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da elkarlanean.
- Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio guztietatik bi ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, betiere *hitzarmenaren* esparruari dagozkion aferei buruzkoak baldin badira.

V. 6. UNIBERTSITATEAK

V.6.1. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

2003ko abenduaren 19an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak 2003. urteko eranskina sinatu dute. EHUren izenean, Manuel Montero errektoreak eta Akademiarenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Eranskin horretan zehazten den legez, 2003. urtean, *La España metafísica* liburua (Iker 16) (Pruden Gartzia Isasti, Azkue Bibliotekako zuzendariarena) argitaratu behar dute bi erakundeek.

V.6.2. DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

2001eko abenduaren 20an, Euskaltzaindiak eta Deustuko Unibertsitateak *hitzarmena* sinatu zuten eta, beste zereginen artean, Kardaberazen III. mendeurrenerako ekitaldia prestatzea zegokien bi erakundeei. Hori dela eta, Antolaketa batzordeak bi bilera egin ditu urtean zehar, mendeurreneko ekitaldiei buruzko zehaztasunak lotzeko. *Oroitidazki* honen I. Atalak jasotzen duen legez, jardunaldia azaroaren 27an burutu da, Deustuko Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusean.

Hitzarmen horren ondorioz, Aita Agustin Kardaberazen *Eusqueraren berri onac* liburuaren edizio kritikoa prestatu dute Patxi Altuna euskaltzainak eta Esther Zulaika Deustuko Unibertsitateko irakasleak.



Donostian, 2003-XI-27an, Deustuko Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusean, Kardaberazen III. Mendeurreko Jardunaldia. **Ezkerretik eskuinera:** Patxi Altuna, Jose Juan Gonzalez Txabbarri, Jose Maria Guibert, Jean Haritschelhar eta Elixabete Perez Gaztelu.

Bestetik, lankidetzan horri esker, *Arnaud Oihenart*. *Euskal atsotitzak eta neurtitzak* liburua kaleratu da, Patxi Altunak eta Jose Antonio Mujikak prestatua. Liburu hau Euskaltzaindiko *Iker* bildumaren 15. liburukia da.

V.6.3 UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Abenduaren 18an, Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak *hitzarmena* sinatu dute, Euskaltzaindiaren egoitzan, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basean (*Inguma*) lankidetzan jarduteko. Xabier Isasi Udako Euskal Unibertsitatearen zuzendariak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sinatu dute.



*Euskaltzaindiaren Egoitzan, 2003-XII-18an, Udako Euskal Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren sinadura. **Ezkerretik eskuinera:** Jean Haritschelhar eta Xabier Isasi.*

Hitzarmen honen helburuak bi dira: alde batetik, Euskaltzaindiak euskaraz sortu, argitaratu eta zabaltzen duenaren gaineko oinarritzko informazioa *Inguma* datu-basean sartzeari (Jardunaldiak, hitzaldiak, ikerketa-lanak, baita kaleratutako liburu zein artikuluen oinarritzko erreferentziak ere); bestetik, unibertsitate mailan euskaraz diharduten irakasle, ikertzaile, sortzaile eta oro har, emaile guztiak harremanetan jartzea, euskararen normalkuntza eta, bereziki, unibertsitate mailako jakintza-arlo bakoitzaren euskararen normalkuntza sustatzeko.

V.7. BAIONAKO IKER TALDEA

Euskaltzaindiak eta *Iker* taldeak lau urteko iraupena duen hitzarmena sinatu zuten, 2001ean; beraz, hau da hirugarren urtea.

Iker taldea hiru erakunde hauek osatzen dute:

- Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS).
- Université Michel de Montaigne – Bordeaux III
- Université de Pau et des Pays de l'Adour

V.8. EROSKI

EROSKI Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarren arteko *hitzarmena* sinatua dute, JAGONET hizkuntza-kontsultarako zerbitzua babesteko.

V.9. EUSKALTEL

2002ko martxoaren 8an, Jose Antonio Ardanza Euskaltel enpresako buruak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak urtebeterako *hitzarmena* sinatu zuten. *Hitzarmen* horren bidez Euskaltelek JAGONET zerbitzuarentzako diru-laguntza eman dio Euskaltzaindiari, eta Egungo Euskararen Bilketa Lan Sistematikoko datutegia dauka bere ordenagailuetan (www.euskaracorporusa.net) horren kostua bere gain hartuz.

V.10. EITB

Andoni Ortuzar Euskal Irrati Telebista (EiTB) herri erakundeko zuzendari nagusiak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak EiTBren -eta horren sozietate Euskal Telebista, Eusko Irratia eta Radio Vitoriaren- eta Euskaltzaindiaren arteko lehendabiziko hiru urterako *lankidetza-hitzarmena* sinatu dute, ekainaren 13an, Akademiaren egoitzan.



Egoitzan, 2003-VI-13an, EITBren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren sinadura. **Ezkerretik eskuinera:** Bingen Zupiria, Andoni Ortuzar, Jean Haritschelhar, Jose Luis Lizundia eta Julian Beloki.

Bi erakundeon arteko lankidetzak jarduerak hiru arlokoak dira, alegia: lexikoa, batez ere Onomastika alorrean, eta bereziki EiTBN erabiltzen diren toponimo, exotoponimo, antroponimo eta abarri lotua; hizkuntzaren gramatika, eta ahoskerari buruzko Arauak eta jarraibideak, hizkuntzaren ahozko erabilerarekin lotuak.

Hitzarmen horretako mamari jarraituz, hiru txosten bidali dizkio Euskaltzaindiak EiTBNri, abenduaren 15ean, 23an eta 30ean. Lehenengo biek, toponimiaz dihardute eta hirugarrenak, gramatikaz eta ortografiaz.

**VI. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia /
Organigrama de Euskaltzaindia /
Organigramme et répertoire d'Euskaltzaindia:**

**VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak /
Relación de académicos y cargos /
Académiciens et responsables**

**VI.2. Batzordeen zerrendak /
Comisiones académicas /
Commissions académiques**

**VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama /
Organigrama de la Real Academia de la Lengua
Vasca / Euskaltzaindia /
Organigramme d'Euskaltzaindia**

**VI.4. Aurkitegia /
Directorio /
Répertoire**

VI.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK / RELACION DE ACADÉMICOS Y CARGOS / ACADÉMICIENS ET RESPONSABLES

EUSKALTZAIN OSOAK / ACADÉMICOS DE NÚMERO / ACADÉMICIENS TITULAIRES

Patxi Altuna	Emile Larre
Jose Antonio Arana Martija	Juan Mari Lekuona
Miren Azkarate	Jose Luis Lizundia
Pierre Charritton	Beñat Oihartzabal
Jean-Louis Davant	Patxi Ondarra
Xabier Diharce "Iratzeder"	Txomin Peillen
Andolin Eguzkitza (†)	Pello Salaburu
Patxi Goenaga	Juan San Martin
Jean Haritschelhar	Ibon Sarasola
Andres Iñigo	Andres Urrutia
Xabier Kintana	Patxi Zabaleta
Henrike Knörr	Antonio Zavala

ZUZENDARITZA / JUNTA DE GOBIERNO / COMITÉ DE DIRECTION

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua / Presidente / Président
Henrike Knörr, buruordea / Vicepresidente / Vice-président
Xabier Kintana, idazkaria / Secretario / Secrétaire
Jose Antonio Arana Martija, diruzaina / Tesorero / Trésorier
Beñat Oihartzabal, **Iker** sailburua / Director de la Sección de Investigación /
Directeur de la Section de Recherche
Andres Urrutia, **Jagon** sailburua / Director de la Sección Tutelar / Directeur de la
Section de Sauvegarde

* * *

ORDEZKARIAK / DELEGADOS / DÉLÉGUÉS

Gipuzkoa / Guipúzcoa / Guipuzcoa : *Juan Mari Lekuona* (laguntzaile / adjunto /
adjoint : *Ana Toledo*)
Araba / Álava / Alava : *Henrike Knörr*
Nafarroa / Navarra / Navarre : *Andres Iñigo*
Iparraldea / Pays Basque Nord : *Pierre Charritton*

* * *

ERAGILEAK / GESTORES / RESPONSABLES

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea¹ / Vicesecretario-gerente / Secrétaire adjoint et gérant

Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea² / Gestor económico / Responsable économique

Prudentzio Gartzia, bibliotekako zuzendaria / Director de la Biblioteca / Directeur de la Bibliothèque

Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea / Gestor de publicaciones / Responsable des publications

Pello Telleria, eragile teknikaria³ / Gestor técnico / Responsable technique

HITZARMENAK / CONVENIOS / CONVENTIONS

Erakundea / Institution	Ordezkaría / Délégué
Deustuko Unibertsitatea / Universidad de Deusto / Université de Deusto	Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia
EUDEL / Asociación de Municipios Vascos / Association des Communes Basques	Diruzaina, Idazkariordea
Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco / Université du Pays Basque	Euskaltzainburua, Idazkaria, Diruzaina
Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria / Mairie de Vitoria	Arabako ordezkaria
Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak / Gobierno Vasco y las Diputaciones de la CAV / Gouvernement Basque et les Députations de la CAB	Burua, Idazkaria, Diruzaina, <i>Iker</i> eta <i>Jagon</i> sailburuak
Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra / Gouvernement de Navarre	Burua, Idazkaria, Diruzaina, Nafarroako ordezkaria
UZEI	Idazkaria, Diruzaina

¹ Data honetara arte / Hasta / Jusqu'au : 2003-VI-26

² Kudeatzaile hemendik aurrera / Gerente desde / Gérant depuis le : 2003-VII-17

³ Idazkariorde hemendik aurrera / Vicesecretario desde / Secrétaire-adjoint depuis le : 2003-VII-17

VI.2. BATZORDEEN ZERRENDAK / COMISIONES ACADÉMICAS / COMMISSIONS ACADÉMIQUES⁴

IKER SAILA / SECCIÓN DE INVESTIGACIÓN / SECTION DE RECHERCHE

Sailburua / Director / Directeur : Beñat Oihartzabal

I. HIZTEGIGINTZA batzordea / Comisión de LEXICOGRAFÍA / Commission de LEXICOGRAPHIE

Burua / Presidente / Président : Ibon Sarasola

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da / Esta comisión se divide en dos subcomisiones / Cette commission se divise en deux sous-commissions :

I.1. Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) lantaldea / Equipo de trabajo del Diccionario General Vasco (OEH) / Groupe de travail du Dictionnaire Général de la Langue Basque

Arduraduna / Responsable : Iñaki Segurola

Kideak / Miembros / Membres : Arantza Egia, Ainara Estarrona, Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Amaia Olabarria, Ainhoa Otamendi.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea / Equipo de trabajo del Vocabulario Unificado / Groupe de travail du Dictionnaire Unifié

Arduraduna / Responsable : Jose Antonio Aduriz

Kideak / Miembros / Membres : Luis Baraiazarra, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia, Xarles Videgain.

II. GRAMATIKA batzordea / Comisión de GRAMÁTICA / Commission de GRAMMAIRE

Burua / Presidente / Président : Patxi Altuna

Idazkaria / Secretario / Secrétaire : Jesus Mari Makatzaga

Kideak / Miembros / Membres : Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Nora Iriarte, Alan King, Itziar Laka, Jose Mari Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Patxi Ondarra, Paskual Rekalde, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

⁴ Izendapen hauek (2003-III-28) 2003 eta 2004rako dira / Estos nombramientos son para el bienio 2003-2004 / Ces nominations concernent les années 2003 et 2004.

III. DIALEKTOLOGIA batzordea / Comisión de DIALECTOLOGÍA / Commission de DIALECTOLOGIE

Burua / Presidente / Président : Andolin Eguzkitza

Atlasgintza lantaldea / Equipo de trabajo del Atlas Lingüístico / Groupe de travail de l'Atlas Linguistique

Arduradunak / Responsables : Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

Kideak / Miembros / Membres : Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Juan Antonio Letamendia, Koro Segurola.

IV. ONOMASTIKA batzordea / Comisión de ONOMÁSTICA / Commission d'ONOMASTIQUE

Burua / Presidente / Président : Andres Iñigo

Idazkari / Secretario / Secrétaire : Mikel Gorrotxategi

Kideak / Miembros / Membres : Patxi Galé, Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan San Martin, Amaia Usabiaga.

Exonomastika / Exonomástica / Exonomastique

Arduraduna / Responsable : Andolin Eguzkitza (†)

Kideak / Miembros / Membres : Gidor Bilbao, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers

Jean-Louis Davant, Jose Antonio González Salazar, Hector Iglesias, Elena Martínez de Madina, Felix Mugurutza, Patxi Ondarra, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Bernardette Soulé, Patxi Uribarren.

V. LITERATURA batzordea / Comisión de LITERATURA / Commission de LITTÉRATURE

Burua / Presidente / Président : Juan Mari Lekuona

V.1. Herri Literatura azpibatzerdea / Subcomisión de Literatura Popular / Sous-commission de Littérature populaire

Arduraduna / Responsable: Juan Mari Lekuona

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Pello Esnal

Kideak / Miembros / Membres: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea / Subcomisión de Investigación Literaria / Sous-commission de Recherche littéraire

Arduraduna / Responsable / Responsable: Juan Mari Lekuona

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Lourdes Otaegi

Kideak / Miembros / Membres: Xabier Altzibar, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Iratxe Gutierrez, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Maria Jose Olaziregi, Karlos Otegi, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patri Urkizu.

VI. EUSKARA BATUKO batzordea / Comisión de EUSKERA UNIFICADO / Commission de BASQUE UNIFIÉ

Burua / Presidente / Président: Pello Salaburu

Idazkaria / Secretaria / Secrétaire: Miren Azkarate

Kideak / Miembros / Membres: Patxi Altuna, Andolin Eguzkitza, Xabier Kintana, Henrike Knörr, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

VII. JAGON SAILA / SECCIÓN TUTELAR / SECTION DE SAUVEGARDE

Jagon sailburua / Director / Directeur: Andres Urrutia

VII.1. Corpus batzordea / Comisión del Corpus / Commission du Corpus

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak / Miembros / Membres: Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren, Paskual Rekalde.

Euskalkien lantaldea / Grupo de Trabajo de los Dialectos / Groupe de travail des Dialectes:

Arduraduna / Responsable: Paskual Rekalde

Kideak / Miembros / Membres: Kaxildo Alkorta, Jon Aurre, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Iraide Iturri, Manu Ormazabal, Alazne Petuya.

VII.2. Sustapen batzordea / Comisión de Promoción / Commission de Promotion

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Andres Iñigo

Kideak / Miembros / Membres: Erramun Baxok, Pierre Charritton, Aingeru Epaltza, Henrike Knörr, Juan Mari Lekuona, Erramun Osa, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers: Juan San Martin, Jose Luis Lizundia.

* * *

EGITURAZKO BATZORDEAK / COMISIONES ESTRUCTURALES / COMMISSIONS STRUCTURELLES

VIII. ARGITALPEN batzordea / Comisión de PUBLICACIONES / Commission des PUBLICATIONS

Burua / Presidente / Président: Jean Haritschelhar

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak / Miembros / Membres: Henrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija, Beñat Oihartzabal, Andres Urrutia, Andolin Eguzkitza(†), Pello Salaburu.

IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea / Comisión BIBLIOTECA AZKUE / Commission de la BIBLIOTHÈQUE AZKUE

Burua / Presidente / Président: Jose Antonio Arana Martija

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Prudentzio Gartzia

Kideak / Miembros / Membres: Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Andolin Eguzkitza(†), Agurtzane Juanena, Jose Mari Larrarte(†), Gerardo Luzuriaga, Juan San Martin.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers: Joseba Agirreazkuenaga, Henrike Knörr.

X. LEGE-EKONOMIA batzordea / Comisión ECONÓMICO-JURÍDICA / Commission ÉCONOMICO-JURIDIQUE

X.1. Lege azpibatzerdea / Subcomisión jurídica / Sous-commission juridique

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Jose Luis Lizundia

Kideak / Miembros / Membres: Jose Antonio Arana Martija, Jon Artatxo, Abel Muniategi, Patxi Zabaleta.


X.2. Ekonomia azpibatzerdea / Subcomisión económica / Sous-commission économique

Burua / Presidente / Président: Jose Antonio Arana Martija

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Juan Jose Zearreta

Kideak / Miembros / Membres: Xabier Erdozia, Sebastian Garcia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose Maria Makua Goienetxe.

**VI.3. EUSKALTZAINDIAREN ORGANIGRAMA /
ORGANIGRAMA DE EUSKALTZAINDIA /
ORGANIGRAMME D'EUSKALTZAINDIA**



Z A I N D I A

BL PLÉNIÈRE

GOBERNO / DIRECTION

SAILBURUAK / DIRECTORES DE SECCIÓN / DIRECTEURS DE SECTION

AGENTE / SECRÉTAIRE ADJOINT GÉRANT
1

EKONOMI ERAGILEA /
GESTOR ECONÓMICO /
RESPONSABLE ÉCONOMIQUE
1

ERAGILE TEKNIKARIA / GESTOR TÉCNICO / RESPONSABLE TECHNIQUE

BATZORDEAK / COMISIONES / COMMISSIONS

ARGITALPEN ERAGILEA /
GESTOR DE PUBLICACIONES /
RESPONSABLE DES PUBLICATIONS
1

HIZTEGIA /
DICCIONARIO /
DICTIONNAIRE

HIZKUNTZ ATLASA /
ATLAS LINGÜÍSTICO /
ATLAS LINGUISTIQUE

BESTE BATZORDEAK /
OTRAS COMISIONES /
AUTRES COMMISSIONS

KATALOGATZAILEA /
KATALOGADORA /
AGENTE DU CATALOGUE
1

ZUZENDARIA /
DIRECTOR /
DIRECTEUR
1

ZUZENDARI TEKNIKOAK /
DIRECTORES TÉCNICOS /
DIRECTEUR TECHNIQUE
2

TEKNIKARIAK /
TÉCNICOS /
TECHNICIENS
8

TEKNIKARIAK /
TÉCNICOS /
TECHNICIENS
2

TEKNIKARIAK /
TÉCNICOS /
TECHNICIENS
3

SALMENTA ARDURADUNA /
RESPONSABLE DE VENTAS /
RESPONSABLE DES VENTES
1

ADMINISTRARIA /
ADMINISTRATIVA /
ADMINISTRATEUR
1

GARBITZAILEA /
LIMPIADORA /
FEMME DE MÉNAGE
1

VI.4. HELBIDEAK / DIRECTORIO / RÉPERTOIRE

EGOITZA / SEDE / SIÈGE

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf. : (00-34) 94 415 81 55
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44
E-mail : info@euskaltzaindia.net
Http://www.euskaltzaindia.net
Kudeatzailea / Gerente / Gérant : Jose Luis Lizundia⁵

AZKUE BIBLIOTEKA / BIBLIOTECA AZKUE / BIBLIOTHÈQUE AZKUE
Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf. : (00-34) 94 415 27 45
Faxa / Fax : (00-34) 94 415 81 44
E-mail: azkuebib@euskaltzaindia.net
Zuzendaria / Director / Directeur : Pruden Gartzia

GORDAILUA / ALMACÉN / DÉPÔT
Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km
Kukullaga-SAGA eraikuntza, 1. solairua
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf. : (00-34) 94 440 62 58
E-mail: jartza@euskaltzaindia.net
Arduraduna / Responsable : Jon Artza

⁵ Ekain arte eta, uztailetik aurrera, Juan Jose Zearreta / Desde julio, Juan Jose Zearreta / Jusqu'au mois de Juillet et ensuite Juan Jose Zearreta.

ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES / DÉLÉGATIONS

ARABA / ÁLAVA / ALAVA

San Antonio, 41

01005 VITORIA / GASTEIZ

Telf. : (00-34) 945 23 36 48

Faxa / Fax : (00-34) 945 23 39 40

E-mail: gasteizordez@euskaltzaindia.net

Ordezkarria / Delegado / Délégué: Henrike Knörr

GIPUZKOA / GUIPÚZCOA / GUIPUZCOA

Hernani, 15

20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

Telf. : (00-34) 943 42 80 50

Faxa / Fax : (00-34) 943 42 83 65

E-mail: donostiaordez@euskaltzaindia.net

Ordezkarria / Delegado / Délégué : Juan Mari Lekuona (Ana Toledo, laguntzailea / adjoint)

NAFARROA / NAVARRA / NAVARRE

Conde Oliveto, 2, 2. eskuin

31002 IRUÑEA / PAMPLONA

Telf. : (00-34) 948 22 34 71

Faxa / Fax : (00-34) 948 21 07 13

E-mail: nafordez@euskaltzaindia.net

Ordezkarria / Delegado / Délégué : Andres Iñigo

IPARRALDEA / PAYS BASQUE NORD

Thiers, 18. 1

64100 BAIONA / BAYONNE

Telf. : (00 33) (0) 559 25 64 26

Faxa / Fax : (00 33) (0) 559 59 45 59

E-mail: baionaordez@euskaltzaindia.net

Ordezkarria / Delegado / Délégué : Pierre Charritton

